



**Euskal Autonomia Erkidegoko
Administrazio Orokorreko eta haren
Administrazio Instituzionaleko kide
anitzeko organoen Jarduketa Egitasmoa**

2020ko ekaina

Gobernantza eta
Berrikuntza **Publikoko 2020**
Plan Estrategikoa

Plan Estratégico de
Gobernanza e Innovación
Pública 2020



“ Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren Administrazio Instituzionaleko kide anitzeko organoen Jarduketa Egitasmoa”

Gobernu Kontseiluaren erabaki- proposamena

2020ko ekaina



Aurkibidea

1. Aurrekariak.....	9
1.1. Esparru arauemailea.....	10
1.2. Maila askotako gobernantza Euskadin.....	11
1.2.1. Kide anitzeko organoak eta erakundearteko koordinazioa.....	11
1.2.2. Plangintza estrategikoa eta politika publikoen ebaluazioa	12
1.2.3. Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseilua.....	14
1.3. Gobernantzaren kanpoko dimentsioa: herritarrekiko harremanak, norbanakoen eta elkarten dimentsiotik.....	15
1.4. Gobernantzaren barne-dimentsioa: sailen arteko koordinazioa	18
2. PEGIP 2020	19
2.1. Proiektuaren beharra eta egokitasuna	19
2.2. Proiektuaren helburuak	21
2.3. PEGIP 2020 planeko beste proiektu batzuekiko lotura	23
2.4. Planteamendua	23
3. Irismena	24
3.1. Aplikazio-eremua	24
3.2. Parte-hartzaileak eta rolak.....	25
3.3. Noiztik noiz arte	26
3.4. Gauzatze-faseak.....	26
3.4.1. Abian jartzeko fasea.....	27
3.4.2. Inbentario-, analisi- eta kontraste-fasea.....	27
3.4.3. Ebaluazioaren eta diagnostikoaren fasea.....	29
3.4.4. Jarduketa Egitasmoa proposatu eta onartzeko fasea	31
3.4.5. Jarduketa Egitasmoa betearazi eta hedatzeko fasea	31
3.4.6. Aldaketaren kudeaketa.....	32
3.5. Planifikazioa eta kronograma.....	34



4. Metodologia	37
4.1. Lankidetzatarte teknika	37
4.2. Lankidetzatarte-gunea.....	39
4.3. Datu pertsonalen babesa	41
4.4. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna	42
5. Kide anitzeko organoen eta haien kideen inbentarioa	43
5.1. Kide anitzeko organoen inbentarioa.....	43
5.2. Kide anitzeko organoetako kideen inbentarioa	46
6. Kide anitzeko organoen analisia eta diagnostikoa.....	49
6.1. Kide anitzeko organoen sorreraren bilakaera / urtea	49
6.2. Kide anitzeko organoak, egoeraren arabera	50
6.3. Kide anitzeko organoak, haiek sortzeko arauaren arabera.....	51
6.4. Kide anitzeko organo aktiboak, barne funtzionamenduko erregulamendua dutenak.....	52
6.5. Kide anitzeko organo aktiboak, jarduketa-eremuaren arabera.....	53
6.6. Kide anitzeko organo aktiboak, atxikipenaren arabera	54
6.7. Kide anitzeko organo aktiboak, tipologiaren arabera.....	58
6.8. Kide anitzeko organoak, izaeraren arabera.....	61
6.9. Informatzeko eginkizuna duten kide anitzeko organo aktiboak	67
6.10. Beste administrazio / erakunde batzuen parte-hartzea duten kide anitzeko organoak	72
6.11. Kide anitzeko organo aktiboak eta herritarren ordezkartza, elkarten bidezkoa zein banaka	75
6.12. Kide anitzeko organo aktiboak eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna	75
6.13. Azpibatzeak edo/eta lantaldeak dituzten kide anitzeko organo aktiboak	76
6.14. Kide anitzeko organo aktiboak eta lanerako eta kudeaketarako tresnak.....	78



7. Kide anitzeko organoen analisia eta diagnostikoa, haien osaeraren arabera.....	79
7.1. Kideak, ordezkari direneko antolakuntza motaren arabera	80
7.2. Kideak, ordezkari direneko antolakuntzaren arabera.....	82
7.3. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Administrazio Orokorreko eta haren Administrazio Instituzionaleko kideak.....	86
7.4. Kideak postu motaren eta postuaren arabera	91
7.5. Organoetako kideak eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna	93
7.5.1. Sexuaren araberako banaketa	93
7.5.2. Kide anitzeko organoan duen kargua eta sexua	93
7.5.3. Ordezkatutako antolakuntza mota eta sexua	95
7.6. Kideak, kide anitzeko organoak eta politika publikoak	97
7.6.1. Kide anitzeko organo aktiboak beren tamainaren (kide kopurua) arabera	97
7.6.2. Kide anitzeko organo aktiboen tipologia eta kide kopurua	98
7.6.3. Kide anitzeko organo aktiboen izaera eta kide kopurua.....	99
7.6.4. Kide anitzeko organoetako jarduketa-eremua eta kide kopurua	100
8. Kide anitzeko organoen ebaluazioa	103
8.1. Kide anitzeko organoen jardueraren fitxa	103
8.2. Kide anitzeko organoen berriazko ebaluazioa, sailen, erakundeen eta enteen arabera	103
8.3. Kide anitzeko organoen ebaluazioaren emaitzak	105
8.3.1. Bilerak	105
8.3.2. Txostenak.....	110
8.3.3. Aurrekontuak	114
8.3.4. Kalte-ordainak	118
8.3.5. Langileak.....	124
8.3.6. Erabakiak	125
8.3.7. Erakundeen koherentzia eta arrazionaltasuna	126
8.3.8. Jarduera, egindako lana eta politika publikoan duen inpaktua	128



8.3.9. Demokraziari eta herritarren parte-hartzeari buruzko Euskadiko Liburu	
Zurian duen tokia	130
8.3.10. Egungo agertokiaren indarguneak eta ahulguneak.....	131
8.3.11. Erronka eta desafio nagusiak	133
9. Jarduketa Egitasmoa	139
9.1. Zeharkako jarduketak	140
9.1.1. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Administrazio	
Orokorreko eta haren Administrazio Instituzionaleko kide anitzeko	
organoen kudeaketa sistema	140
9.1.2. Kide anitzeko organoen kudeaketa-sistemaren aplikazioan egindako	
hobekuntzak.....	149
9.1.3. Kide anitzeko organoen lan egiteko espazioak eta kudeaketa.....	150
9.1.4. Kide anitzeko organoetako txostenen izapidetze elektronikoa	155
9.1.5. Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko neurriak	157
9.1.6. Partaidetzarako kide anitzeko organoak eta Demokraziari eta	
herritarren parte-hartzeari buruzko Euskadiko Liburu Zuriaren	
zabalkundea.....	157
9.1.7. Publizitate aktiboa eta gardentasuna.....	161
9.1.8. Kide anitzeko organoen kudeaketari eta jarduerari buruzko urteko	
oroitidazkiak	162
9.1.9. Kide anitzeko organoen aldizkako ebaluazioak	164
9.1.10. Kide anitzeko organoen balorazio-inkesta	166
9.1.11. Kide anitzeko organoei buruzko jardunaldiak	174
9.2. Irismeneko berariazko jarduketak	175
9.2.1. Kudeaketa-sisteman alta eman gabe dauden kide anitzeko organoak	175
9.2.2. Kide anitzeko organo ez-aktiboen azkentzea	178
9.2.3. Kide anitzeko organoen iraunkortasunari buruzko gogoeta	178
9.2.4. Kide anitzeko organoen egitura soiltzea	179
9.2.5. Kide anitzeko organoak eta Tokiko Politika Publikoen Euskal	
Kontseilua	179
9.2.6. Osakidetza ente publikoko kide anitzeko organoei buruz emandako	
jarraibidea	180
9.3. “Kasuz kasuko” berariazko jarduketak	181



9.4	Jarduketa Egitasmoaren jarraipena.....	185
9.5.	Aurrekontua	186
9.6.	Jarduketa Egitasmoa hedatzeko eta betearazteko plangintza.....	188
10.	Recomendaciones y propuestas	192
10.1	Kide anitzeko organo berriak sortzeko, iraunarazteko eta azkentzeko irizpideak	192
10.2.	Kide anitzeko organoak eta arau-xedapen orokorrak egitea	195
10.3.	Kide anitzeko organoen barne-funtzionamendurako arauak onesteko eta berrikusteko jarraibideak	196
1. eranskina	Kide anitzeko organoen informazio-fitxa (eredua)	
2. eranskina	Kide anitzeko organoetako kideen informazio-fitxa (eredua)	
3. eranskina	Kide anitzeko organoen jarduerarako eta ebaluaziorako ereduzko fitxa	
4. eranskina	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren Administrazio Instituzionaleko kide anitzeko organo aktiboen zerrenda	
5. eranskina	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren Administrazio Instituzionaleko jardunik gabe dauden eta desagertzekoak diren kide anitzeko organoen zerrenda	
6. eranskina	Udalen ordezkaritza izan eta organo betearazleak edo gobernu-organok ez diren Euskal Autonomia Administrazio Orokorreko edo honen Administrazio Instituzionaleko kide anitzeko organoen zerrenda	
7. eranskina	Kide anitzeko organoentzako berariazko jarduketen proposamenen fitxak	



Atariko oharra:

Dokumentu hau oinarrituta dago Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren Administrazio Instituzionaleko kide anitzeko organoen eta horien kideen informazio- eta jarduera-fitxetan dauden datuetan, 2019-02-04an, [proiektuaren lankidetzaren gunean](#).

Informazio hori Eusko Jaurlaritzako sail bakoitzak, erakunde autonomo bakoitzak eta zuzenbide pribatuko ente bakoitzak eman du.

Kide anitzeko organoen ebaluaziorako azterketa- eta diagnosi-aldia 2014-2017 urteetako izan da, eta 2018. urtea erabili da datuak bildu, ustiatu eta tratatzeko.



1. Aurrekariak¹

Kide anitzeko organo asko eta asko eta desberdinak dira zenbait eremutan (jarduketa-eremua, kide kopurua, osaketa, izaera, tipologia, funtzioak...), eta mekanismorik ohikoenak dira bai Euskadin eta bai ingurumarietan, administrazio publikoen artean **koordinatzeko** eta herritarrek administrazio publikoetan iraunkorki **parte hartzeko**. Maiz, partaidetza-estrategia gisa sortu dira pasa den mendeko laurogeiko hamarkadatik, gobernu-maila guztietan, eta gobernuen eta elkarten arteko solaskidetza-era nagusia izan dira.

Hala ere, ez dugu aurkitzen organoon funtzionamendua², jarduera eta politika publikoetan duten eragina aztertu eta ebaluatzeko prozesu askorik; era berean, ez dute merezi izan, oro har, komunikabideen arreta, eta, nahiz eta, azken urteetan, gardentasunaren eta publizitate aktiboaren gaineko politikak gero eta ikusgarriagoa egiten ari diren administrazio publikoen jarduera, esan dezakegu lana dagoela egiteke gai horri dagokionez, garrantzitsuak diren arren prozedura askotan eta politika publikoen gaineko erabakiak hartzeko garaian.

Dena den, aipatutako xehetasunen ezagutza zorrotzik ez dagoen arren eta eszeptizismoz sarritan ulertu den arren kide anitzeko organoek, kontsultakoek zein parte-hartzerakoek, izaera formal handia dutela, ez dira bazter utzi.

Izan ere, aspaldidanik kezkaz uste izan da kide anitzeko organoek gehiegizko neurria dutela, larregi direla, zalantzan jarri dira haien efikazia eta efizientzia, bai eta politika publikoak diseinatzean, betearaztean eta ebaluatzean duten benetako eragina ere.

Azken urteetan, 2015etik aurrera batez ere, estatuko tokiko korporazio batzuk planak ari dira garatzen organo horien funtzionamendua berpizteko eta berraktibatzeke; beraz, organo horien azterketa [Gobernu Irekiaren III. Planaren](#) barruan dago, eta [Ikasketa Politiko eta Konstituzionalen Zentroa \(CEPC\)](#) ari da garatzen plan hori.

Arestiko esperientzia hurbila dugu Ikerketako Estatu Idazkaritzaren I+G+b Plan Nazionalaren assoDEM³ proiektua. Ikerketa Zientifikoen Kontseilu Goreneko (CSIC) Gizarte Ikaskuntza Aurreratuen Institutua (IESA) ari da garatzen proiektu hori,

¹ [IESAko assoDEM proiektuaren 1. buletina](#)

² Kasu interesgarria da [Nafarroan Herritarren Parte-hartzea Sustatzeko 2017-2019 Plana](#) (2.5.4. atala: Herritarren parte-hartzearekin lotutakoak izan eta Nafarroako Gobernuak sustatzen dituen kide anitzeko organoen egoera. Eta 2.3 atala: Nafarroako Gobernuaren menpeko parte-hartzerako kide anitzeko organoen funtzionamendua hobetzea).

³ [Accountable autonomy? Examining multilevel associational democracy in Spain, 2017. Rico Motos, C. et cols. Reviewing participatory motivations in multilevel advisory councils](#), Paper presented at the workshop "Can Participatory Reforms Save Representative Democracy", Joint Sessions of the ECPR, Nicosia, April 2018. Font Fabregas, J et cols.



partaidetza-kontseiluek administrazio publikoen mailetan (estatukoak, autonomia-erkidegoetakoak eta tokikoak) duten funtzionamenduari buruz.

1.1. Esparru arauemailea

[Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen](#) 7. artikuluan aholku-organoak arautzen dira eta, arautu ere, hirugarren atalean, administrazio publikoetako kide anitzeko organoak arautzen dira.

Alde batetik, 7. artikulua honako hau dio:

“Administrazio Aholku-emailea egituratu daiteke administrazio aktiboarekiko autonomia organikoa eta funtzionala duten organo espezifikoak erabilita, edo administrazio horren zerbitzu juridikoen bitartez”.

Kasu horretan, zerbitzu horiek ezin izango dute hierarkia-mendekotasunik izan, ez organikoki ez funtzionalki, eta ezin izango dute jaso jarraibiderik, jarraibiderik edo bestelako adierazpenik kontsultaren xede diren egintzak egin edo sortu dituzten organoengandik”.

Bestalde, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 3. atalak administrazio publikoetako kide anitzeko organoen funtzionamenduari buruzko oinarritzko alderdiak arautzen ditu: araubidea, idazkaria, deialdiak eta bilkurak, eta aktak (40/2015 Legearen 15. artikulutik 18. artikulura).

Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan administrazio-organoak arautzen dituen beste araudirik ez dagoenez indarrean, aipatzekoa da gaur egun Eusko Legebiltzarrean izapidetzen ari dela Euskal Sektore Publikoaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko lege-proposamena (eta hori onartuz gero, kontuan hartu beharko da). Proposamen horrek adierazten du, itxuraz, euskal autonomia-esparruko kide anitzeko organoak eta herritarrek eta elkarteek parte hartzeko espazio egonkorrak arautzeko borondatea.

Azkenik, [Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2016ko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak](#) Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseilua sortu eta arautzen du 83. eta 86. artikuluen artean. Jarduketa-plan honen xedearen arabera, aipamen berezia egin behar zaio 86.1 artikulua e) paragrafoari, Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluaren eginkizunak xedatzen baititu, zehazki, "Lankidetzak-sistemak edo, hala badagokio, koordinazio-sistemak sustatzea, gobernu-maila guztiek politika publikoak modu integratuan kudeatzeko".



1.2. Maila askotako gobernantza Euskadin

1.2.1. Kide anitzeko organoak eta erakundearteko koordinazioa

Kide anitzeko organo asko sortu dira Euskadiko gobernu-mailen arteko **erakundearteko koordinazioa** gauzatzeko, herritarren partaidetzarekin edo partaidetzarik gabe.

1994an, [Administrazio Publikoa Arrazionalizatu eta Hobetzeko Batzordearen \(CORAME\) txostenean](#), Jaurlaritzaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreren antolamendu-egitura berritzeko zenbait neurri proposatu ziren; hauxe, besteak beste: *“batzorde kopurua gutxitzea eta euren funtzionamendua arrazionalizatzea”* (3.2. kapituluko 13. neurria: *“Antolakuntza-egiturak sinplifikatzea”*).

Txosten horretan honako hau proposatzen zen: *“egungo batzorde batzuen orde, koordinazio-mekanismo erraz eta azkarrak ezartzea”*. Bertan ere honako hau aipatzen zen: *“egon badago egungo funtzionamendua hobetzeko aukera handia”*. Halaber, honako orientazio hauek eman ziren:

- Kide anitzeko organoen osaera doitzea
- Batzordeei erabakimena ematea
- Bileren prestaketa eta jarraipen hobia bermatzea
- Sailen eta administrazioen arteko koordinazio ona bermatzea eta euren arteko komunikazio iraunkor eta azkarra sustatzea, eta beharrezkoa den neurrian soilik sortu behar dira aldi baterako lantaldeak edo lotura-mekanismo formalizatuak
- Batzorde eta komiteen indarraldia aldi baterakoa izatea, koordinazio-beharrian benetakoa denean soilik

2006an, [Gobernu Kontseiluaren erabakia, gobernantzaren oinarrizko lerro estrategikoez Euskadin: “politika publikoetarako berrikuntza- eta ebaluazio-eredu bat Euskadiko Administrazio Publikoan”](#). Bertan, III. jarduketa-ardatza azaltzen zen: *Euskadiko administrazio publikoak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko gobernantzari eginiko ekarpena: plangintza orokorra erakundearteko eremura hedatzea, kohesio-tresna gisa* (Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseilua).(...)



Legealdi horretan ere, Eusko Jaurlaritzaren eta Eusko Ikaskuntzaren arteko hitzarmenak [Euskal Autonomia Erkidegoko gobernantza-sistamarako hausnarketa, 2007](#) ekarri zuen, non kontu bera aipatzen baitzen gobernantza-ereduaren arkitekturaren gakoen eta gobernantzaren Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sistemaren nahitaezko koordinazioaren artean.

2010ean, Gobernu Kontseiluak 2010eko otsailaren 9an hartutako erabakiaren ekimenez eratutako lantaldeak egin zuen. "[Egungo arau-esparruari eta kide anitzeko organoei buruzko hausnarketa-agiria](#)" egin zuen. Lantalde hori honako organo administratibo hauetako arduradunek osatu zuten:

- Araubide Juridikoaren Sailburuordetza
- Ekonomia, Aurrekontu eta Kontrol Ekonomikoko Sailburuordetza
- Koordinaziorako Idazkaritza Nagusia
- Berrikuntzaren eta Administrazio Elektronikoaren Zuzendaritza

Xedapen arautzaile orokorrak egiteko prozeduretan kide anitzeko organoek emandako txostenei dagokienez (organo horien txostenik gehienak), lantalde horrek neurri eta gomendio batzuk eman zituen, eta indarra dute gaur egun, beraz, egitasmo honetan jaso dira (9.1.3 atala).

1.2.2. Plangintza estrategikoa eta politika publikoen ebaluazioa

Plangintza estrategikoa herritarren partaidetzarekin diagnostiko partekatua adosteko kudeaketa-sistema da, horren ondorioz, bidea emango duena lehentasunezko helburuak zehaztu eta horiek lortzeko estrategia bateratua sortzeko.

Ebaluazioak, besteak beste, ikaskuntza jarraituaren eginkizuna du, botere eta kudeaketa publikoak hobetzeari begira. Politika publikoen diseinuari, plangintzari eta exekuzioari buruzko ezagutza dakar; lortutako emaitzen, haien baliagarritasunaren, eraginen eta ukipenen diagnosia egiten du; lagungarri gertatzen da desbideratzeak zuzentzeko, eta baliabideen kudeaketan erabakiak hartzen laguntzen du, haiek proposatutako helburuen eta erabilitako bitartekoen arabera esleituz. Baina, batez ere, konfiantzan, gardentasunean eta erakundeek guztien onerako jardutean oinarrituta sortutako komunitate demokratiko baten gizartearen aurrerabideari buruzko ebidentziak ematen ditu.



Aurrekontuak **emaitzetara bideratuta** **taxutzea** kudeaketa-ziklo baten barruan txertatzen da; lehen urratsa estrategia, politikak eta lehentasunak diseinatzea da, eta aurrekontua prestatzea, eta politika horiek gauzatzea dator ondoren. Gero ebaluazioa egiten da, politika horiek hobetzeko, eta atzera ere, berriz zikloari ekin.

Hartara, arlo honetan egiazko herrialde-estrategia bat abian jartzeko eta plangintza

estrategikoak eta ebaluazioak Gobernantza Publiko berrian esleitzen zaizkien eginkizuna bete dezaten, ezinbestekoa da, lehenbizi, hura prozesu instituzionaletan integratzea, eredu instituzional eta antolamenduzkoari heltzea. Behin hura ezarri ondoren, beharko diren lan-lerro ugari eta askotarikoei ekin ahalko zaie.

Euskadiko antolaketa instituzionalaren emaitza gisa, gure ebaluazio sistemaren antolamendu-ereduaren arkitekturak heldu behar die plangintza estrategikoaren eta ebaluazioaren arloetako konplexutasunari, dibertsitateari, elkarren mendekotasunari eta erantzukidetasunari.

Politika publikoen plangintzarako eta ebaluaziorako sistema bat sortzeak helburu du bideratzea plangintza estrategiko eta ebaluazio hori egin daitezela.

Hori guztia dela eta, *PEGIP 2020ren* helburu estrategikoetako bat da “Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorraren plangintza estrategikoa eta esku-hartze publikoen ebaluazioa bultzatzea”, hain zuzen ere plangintza estrategiko adimenduna deitu izan dena; eta 2. ardatza, Gardentasuna, Parte-hartzea eta Gobernu Ona izenburu duenak, **Politika publikoak Ebaluatzeako Sistema bat ezartzeko Proiektua** jasotzen du, eta plangintza estrategikoa eta ebaluazioa Gobernantzarako eta Berrikuntza Publikorako politikaren erdigunean kokatzen ditu.

Hona *PEGIP 2020ren* nondik-norakoak: plangintzako eta ebaluazioko sistema publikoaren eredua diseinatzea, haren egitura-plangintza egitea, eta hura eraikitzeke eta eraginkortasunez garatzeko lehentasunezko jarduketak betetzea. Aldi horren



helburua da sistemaren elementu gakoak definitzea, bidea emango baitute hurrengo faseetan hura osatzen duten elementuak garatzeko.

1.2.3. Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseilua


[Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea](#) onartu izana erabakigarria izan zen topatze-, erabakitze- eta hitzartze-foroei dagokienez, foro horien helburua administrazioen arteko koordinazioa egikaritzea eta aktore publiko batzuegan eragina duten politikak diseinatu eta inplementatzeko adostasuna erraztea baita.

[Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseilua](#) lege horren 83. artikuluan sortu zen eta, parekotasunez, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru erakunde-mailetako ordezkariak biltzen ditu. Besteak beste, eginkizun hauek hartzen ditu bere gain “*administrazioen arteko elkarlana eta informazio-trukea sustatzea, autonomia-erkidegoko administrazioaren, foru-aldundien eta tokiko administrazioen artean*”; “*politika publiko sektorialeaz eztabaidatzea eta denen artean lantzea, eta dauden gobernu mailetan zernolako eragina duten ikustea*”; eta “*lankidetzarako eta, beharrezkoa bada, koordinaziorako sistemak sustatzea, dauden gobernu-mailetako politika publikoen kudeaketa integratua izan dadin*”.

Aukera bat da, maila anitzeko osaerako topaketa- eta lankidetza-foroen konstelazioa berriz aztertzeke, izan ere, forook izaera desberdinekoak izan arren, orain arteko konfigurazioa antzekoa izan da, eta helburua maila anitzeko gobernantza arrazionalizatzea, sinplifikatzea eta gardenagoa egitea da, beharrezkoak ez diren errepikapenak saihesteko.

2/2016 Legea indarrean jartzeak Euskadiko Udal Kontseilua desagerraraztea ekarri zuen, baina era berean ekarri ahalko luke beste topaketa- eta lankidetza-foro batzuk desagertzea, horien eginkizunak Kontseilu berriak bereganatu ahal izan ditzan, errepikapenak saihesteko (ikus 9.2.5 atala).

Hori guztia dela eta, udal-eskumenen eremuan, [Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluak](#) funtsezko eginkizun bat izan dezake aurreko atalean aipatutako politika publikoen plangintzarako eta ebaluaziorako sistemaren antolamendu-ereduan, egiteko instituzional garrantzitsua duen kide anitzeko organo iraunkor gisa: euskal erakundeen eremuan politika publikoen baliatzea koordinatu, integratu eta bultzatzea. Politika publikoak diseinatu, landu, betearazi eta ebaluatzeke prozesuetan erakundeen arteko lankidetza-harremanak eraginkor egin nahi dituen egitura instituzionala da.



1.3. Gobernantzaren kanpoko dimentsioa: herritarrekiko harremanak, norbanakoen eta elkarteen dimentsiotik

Herritarren parte-hartzea garatzeko bide instituzionalak:⁴

Herritarrek erakundeetan duten parte-hartzea kudeatzearen arloan aditu direnen artean, adostasuna dago administrazioetan maizen egoten diren parte-hartzerako espazioen sailkapena haien izaeraren arabera egiterakoan. Lehenengo kategorizazio bat egiten da oinarri gisa hartuz ea izaera organiko eta egonkorraren arabera eratzen diren edo, bestela, izaera funtzional eta aldi baterakoa duen parte-hartzea den. **Parte-hartze organiko eta egonkorraren** barruan, kide anitzeko organo deitutakoak aurkituko ditugu; parte-hartze funtzional eta aldi baterakoaren barruan, berriz, nabarmentzekoak dira, gehien zabaldu den jokamoldea baitira, **parte-hartze prozesuak** deitu izan direnak eta **kontsultak**, zeinak hainbat tresna erabiliz egin ahal

⁴ [Nafarroan Herritarren Parte-hartzea Sustatzeko 2017-2019 Plana.](#)



baitira: entzunaldi publikoak, kontsulta-foroak, herritarren panelak, herritarren epaimahaiak eta beste.

Kide anitzeko organoak parte-hartzerako espazio iraunkor eta egonkorak dira, nolabaiteko erregularitasunez biltzen direnak eta, oro har, izaera sektorialeko gaiak lantzen dituztenak. Antolaketa-egitura formalizaturik daukate, haiek arautzen dituen araudi batean oinarritzen dira eta, oro har, egintza administratibo baten bitartez sortzen dira. Haien parte-hartzea jardueraren kasuko sektoreak ordezkatzeko erakunde jakin batzuetara murriztuta dago. Agintaritzak politikoak edo/eta haiek ordezkatzeko erakundeak proposatu ahal dituzte, nahiz eta izendatzea lehenengoari dagokion. Kide anitzeko organoak dira azken hamarkadetan administrazio publikoetan gehien garatu diren parte-hartzerako ereduak. Izan ere, jardueraren esparrua guztietan daude, eta haietan, oro har, hainbat modutako gizarte-entitateen ordezkariak hartzen dute parte, beren izenean diharduten adituekin batera. Orain arte, kasu askotan, parte-hartzerako eredu oso formalizatu eta burokratizaturik izan da, inklusioari, eztabaidari eta erabakiak hartzeko eragimen erreala dagokienez gabezia larriak izan dituenak.

Parte-hartze prozesuak, bestalde, aldi mugatu batez aurrera eramaten diren parte-hartzerako espazioak dira, eta parte-hartzearen adierazpen dinamikoagoa eta irekiagoa dira. Administrazioek espazio horiek zabaltzen dituztenean, helburu izan behar dute ezagutzea zein diren programa, proiektu edo araudi baten aurrean, besteak beste, herritarrek dauzkaten interesak, jarrerak eta proposamenak, abiapuntuko jarrera desberdinak egon daitezkeen gai konplexuetan alternatibak eraikitzeko borondatearekin.

Organoak, kontsultak eta prozesuak parte-hartzerako esperientzia desberdinak dira: aldi, helburu eta norainoko desberdinak dituzte —bai parte-hartzaileei dagokienez, bai erabakien eragimen-graduari dagokionez ere—. Bestalde, parte-hartzaileek esku hartzeko metodoak hainbat modutakoak izaten dira, eta haien parte-hartzeak eragina du politika publikoak egin eta betearazteko prozesuaren faseetan.

Orain dela urte batzuetatik hona, kide anitzeko partaidetza-organoak sortzea da **herritarrek (banaka edo elkarteka)** politika publikoetan erabakiak hartzeko prozesuetan **iraunkorki parte hartzeko era**, prozedura batzuetan ezarritako entzunaldi-izapide eta jendaurrean jartzeko izapide klasikoetatik eta arestia-izapide aurretiko kontsulta-izapidetik (kasu batzuetan, adibidez, izaera orokorreko xedapenen kasuan) haratago.



Ilde horretatik, kide anitzeko organoak garrantzitsuak dira edo izan beharko lirateke gobernantzaren kanpo dimentsioan, hau da, herritarrekiko harremanetan. Banaka nahiz taldeka gertatzen bada, elkarrekintza edo interakzio hori ardatz hirukoitz baten inguruan egituratu behar da: gardentasuna, partaidetza, planifikazioa-ebaluazioa.


Hiruki kontzeptual bat, ziklo koherente gisa pentsatuta; izan ere, gardentasuna beharrezkoa da herritarrek behar besteko informazioa, kalitatezkoa, eduki dezaten, gai publikoetan parte hartzeko, erantzukizunez eta dokumentatuta, eta biak —gardentasuna eta parte-hartzea—, era berean, ezinbestekoak dira politika publikoen benetako eragina ebaluatzeko. Ebaluazioak, bestalde, zentzua ematen dio gardentasunari, eduki erabilgarriak ematen dizkio. Hiru ardatzok (gardentasuna, partaidetza eta ebaluazioa) gidatu beharko lukete kide anitzeko organoen funtzionamendua.

[Euskadiko Demokraziari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zurian](#) jasotako apustu horrek administrazioen eta herritarren arteko harremanak berriz formulatzera garamatza, alegia, gobernantza-eredu berri hori ezartzera, helburutzat duena balio publikoa sortzeko konpromiso kolektiboan euskal gizarteak dituen ahal publikoak eta pribatuak aintzatestea eta haiengan eragitea.

Liburu Zuriak bere zabalkunde-konpromisoen artean honako hau dakar: “*Euskadin dauden prozesu parte-hartzaileen parte eta kanal formalen inguruan azterketa kritikoa egitea. Nabarmentzekoa da zer nolako garrantzia duen administrazio-egituretan integratuta dauden kontseilu eta organo parte-hartzaileak / aholku-emaileak berrikusteak, Liburu Zuria hedatzeko bidean ongi txerta dadin: zer balio ekar dezaketen horretan edota, are, parte hartzea eragotz dezaketen trabak izan daitezkeen ala ez*” (ikus 8.3.9 eta 9.1.6 atalak).



1.4. Gobernantzaren barne-dimentsioa: sailen arteko koordinazioa



Azkenik, aspalditik, kide anitzeko organoak Administrazio honen **barne-koordinazioko** mekanismo iraunkor eta formalak dira, bai Eusko Jaurlaritzaren barruko sailen artean eta bai Jaurlaritzaren eta bere administrazio Institutuzionalaren artean ere.

Ez dira gutxi “sailarteko batzorde” izenekoak eta antzekoak (29 dira gaur egun ⁵), eta garrantzi handia izan beharko lukete gobernantzaren barruko dimentsioan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko administrazio orokorraren

politika publikoen zeharkako eta antolakuntzako ikuspegi integralaren bilaketan (6.7 atala).

⁵ 9.1.2 B atalean, sisteman datua berrikusteko aurreikuspen bat jaso da kide anitzeko organo guztietarako.



2. PEGIP 2020

2.1. Proiektuaren beharra eta egokitasuna

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Erakunde Harremanetarako Sailburuordetzaren Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza da [2020ko Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko Plan Estrategikoa](#) (PEGIP 2020) bultzatzearen erantzulea. Plan estrategiko hori Gobernu Kontseiluaren 2017ko abenduaren 12ko Erabakiaz onetsi zen "[Euskadi 2020 - 2016-2020 urteetako XI. Legegintzaldirako Gobernu Programaren](#)" estrategiaren barruan.

PEGIP 2020ren helburuak, besteak beste, hauek dira: *“Administrazioaren eta bere sektore publikoaren antolaketa-egitura egokitzea herritarren egungo beharretara eta eraldaketa digitalaren, elkarlanaren eta berrikuntzaren edo gobernu onaren ondoriozko lan egiteko modu berrietara, eta Administrazio publikoan gardentasuna, parte-hartzea eta lankidetzaren sustatzea”*.


Helburu estrategiko hori Gobernu Programaren **behar publiko** eta konpromiso eta ekimen hauei lotuta bideratu behar da:

Herritarren beharrak	Gobernu-programako konpromisoak
1. Administrazio publikoaren funtzionamendua erregimen demokratiko aurreratu baten eskakizunetara egokituta egotea; horretan, herritarrek kontrol zuzena dute erakundearen jardunean eta eginkizun erantzunkidea dute politika zein erakunde publikoak diseinatzeko, gauzatzen eta ebaluatzen.	60. Efizientzia eta berrikuntza oinarritutako administrazio publiko hurbilagoa bultzatu. 61. Gardentasuna eta herritarren parte-hartzea sustatu.
2. Politika publikoen kudeaketa sarean diharduen eredu parte-hartzaile eta barne-hartzailea oinarri duena eta politika publikoak bultzatu, diseinatu, betearazi eta ebaluatzearen prozesuan kanpoko eragileak sartzen dituen .	61. Gardentasuna eta herritarren parte-hartzea sustatu.
3. Administrazioen arteko lankidetzaren eraginkorra , zenbait eragile publikori eragiten dieten politiken diseinua eta ezarpena gidatu behar duen adostasuna errazteko.	60. Efizientzia eta berrikuntza oinarritutako administrazio publiko hurbilagoa bultzatu.
4. Sektore publikoa (enplegatu publikoen kudeaketa, antolaketa, prozedurak eta kudeaketa autonomikoaren moduak) gobernantza publikoaren ildotik joatea eta gobernantzaren printzipioetan oinarritutako administrazio-kultura berria sortzea.	59. Sektore publikoa sinplifikatu. 60. Efizientzia eta berrikuntza oinarritutako administrazio publiko hurbilagoa bultzatu.

Helburu estrategiko horiekin eta Gobernanzaren barneko eta kanpoko dimentsioekin koherentzia gordez, PEGIP 2020 plana gobernantzaren honako hiruki kontzeptualaren



arabera garatzen da: gardentasuna eta herritarrek gai publikoetan parte hartzea, plangintza estrategiko eta adimenduna (plangintza, ebaluazioa eta kontu ematea) eta herritarrekin interakzioan jarduteko eredua, parte-hartzea errazte aldera.



Planteamendu horrekin bat, *PEGIP 2020* plana hainbat ardatzen arabera egituratzen da; horien artean, honako hau dago: **6. ardatza. Kudeaketa aurreratua - antolaketaren egokitzapena**





Bestalde, aipatu den bezala, [Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak](#) Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseilua sortu zuen, «udalerrien eta autonomia- eta foru-erakundeen arteko lankidetzaren harremanak gauzatzeko helburua izango duen erakunde-egitura gisa, tokiko gobernu-eremuari eragiten dioten politika publikoak diseinatu, prestatu, burutu eta ebaluatzeko prozesuetan udalerrien interesak aitortu eta aintzat hartuko direla bermatzeko.

Hori dela eta, *PEGIP 2020* planaren “Kudeaketa aurreratua - antolaketaren egokitzapena” izena daraman 6. ardatzeko proiektuen artean, honako hau dago: [6.4. Proiektua. Kide anitzeko organoen ebaluazioa eta hobekuntza. Politika Publikoen Euskal Kontseilua](#); izan ere, azken horren **egitekoa** da arrazionalizatzea eta hobetzea *Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Administrazio Orokorren mendeko kide anitzeko organoak, eta gauzatzea Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluaren funtzioak, horiek tresna baliagarri, eraginkor eta efizienteak izan daitezen politika publikoak partaidetzaren bidez eta gardentasunez definitu, egikaritu eta ebaluatzeko.*

2.2. Proiektuaren helburuak

Aipatutako proiektuaren **helburu eta asmo orokorra** da *kide anitzeko organoetarako Jarduketa Egitasmo bat betearaztea, zeharkako eta berariazko neurrien bitartez, bereziki maila ezberdinetako euskal administrazio publikoak inplikatzan dituzten politika publikoetan hobetu ahal izateko partaidetza-funtzioak, aholkularitzakoak eta koordinaziokoak, abiapuntutzat hartuta inplikaturiko pertsona eta erakunde guztien arteko gogoeta bateratua eta partaidetzazkoa eta gaur egungo egoeraren indarguneen eta ahulezien gaineko ebaluazioa eta diagnostikoa.*

Hauetara **proiektuaren helburu nagusiak**:

- Kide anitzeko organoen ezaugarriak haien arauketa, funtzioak, egitura eta osaera eta funtzionamendua ezagutu eta aztertzea.
- Organo horien jardura eta lana ezagutzea eta aztertzea.
- Politika publiko sektorialen definizioan, diseinuan, jarraipenean eta ebaluazioan daukaten eragina ebaluatzea.
- Dauden kide anitzeko organoetatik, identifikatzea zeinen zereginak har ditzakeen bere gain Politika Publikoen Euskal Kontseiluak eta bertan Batzorde Sektorialak



sortzeko aukera aztertzea ([Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen](#) 86.3 artikuluan aurreikusita daude batzorde sektorialak).

- Jarduketa Egitasmoa ezarri eta zabaltzeko behar diren araugintzako, erregelamenduzko eta antolamenduzko neurriak bultzatzea.

Hauek dira proiektuaren **helburu operatiboak**:

- Euskadiko Administrazio Orokorreko eta bere Administrazio Instituzionaleko (erakunde autonomoak eta zuzenbide pribatuko ente publikoak) kide anitzeko organo guztien inbentario eta karakterizazio bat egitea.
- Inplikaturako eragile guztiek (administrazioa, kide anitzeko organoetako eta entitateetako kideak) kide anitzeko organoen gaur egungo eta etorkizuneko egoerari buruz daukaten iritzia ezagutzea.
- Euskal Gobernantzaren kide anitzeko organoen indarguneak eta ahuleziak ebaluatzea eta diagnostikatzea.
- Kide anitzeko organoak arrazionalizatzeko eta hobetzeko neurriak proposatzea, era guztietakoak; besteak beste, araudiari, erregelamenduari, antolaketari eta funtzionamenduari dagozkienak.
- Jarduketen hedapen operatiboa planifikatzea.
- Jarduketak betearaztea, erregelamenduzko eta antolamenduzko neurriak aplikatu behar dituzten agenteak inplikatur.

Jarduketa egitasmoak **Gobernuaren konpromiso** hauei erantzun beharko die:

- **Gobernu Programa:** 60. konpromisoa: “*Efizientzian eta berrikuntzan oinarritutako administrazio publiko hurbilagoa bultzatu*”, eta 8. ekimena: “*Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Administrazio Orokorreko maila anitzeko erakundeez osatuta dauden kontseiluak aztertu, eta identifikatu horietatik zeinen zereginak bete ditzakeen Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseilua*”.
- [Euskadiko Demokraziari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zuria](#): honako hau egiteko konpromisoa: “*Euskadin dauden prozesu parte-hartzaileen*



parte eta kanal formalen inguruan azterketa kritikoa egitea. Nabarmentzekoa da zer nolako garrantzia duen administrazio-egituretan integratuta dauden kontseilu eta organo parte-hartzaileak / aholku-emaileak berrikusteak, Liburu Zuria hedatzeko bidean ongi txerta dadin: zer balio ekar dezaketen horretan edota, are, parte hartzea eragotz dezaketen trabak izan daitezkeen ala ez”.

- **Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluaren 2017ko urriaren 31ko Erabakia:** “azterlan bat egitea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko hiru maila instituzionalek edo erkidego-mailak eta udal-mailak parte hartzen duten kide anitzeko organoak arrazionalizatzeko modua aztertzeo, eta Tokiko Politika Publikoen Kontseiluari helaraztea, kontuan har dezan”.

2.3. PEGIP 2020 planeko beste proiektu batzuekiko lotura

PEGIP 2020 planeko 6.4 proiektuak zuzeneko edo zeharkako lotura du planeko beste proiektu batzuekin:

Lotutako proiektuak / azpiproiektuak
2.3. Gobernantza, Gardentasun eta Partaidetzarako Sailarteko Batzordea
2.5. Demokraziari eta herritarren parte-hartzeari buruzko Euskadiko Liburu Zuriko konpromisoak betetzea
2.6. Esku-hartze Publikoak ebaluatzeko Sistema ezartzea
6.1. Euskal sektore publikoaren antolamendu eta funtzionamenduaren Legea
6.2. Izaera orokorreko xedapenak egiteko Legea
7.2. Administrazio elektronikorako plataforma 7.2.2. Tramitagunearen bilakaera

2.4. Planteamendua

Proiektua, eta hartatik datorren Jarduketa Egitasmoa, ikuspegi integral eta zeharkakoarekin egin da, Eusko Jaurlaritzako sail guztien, erakunde autonomoen eta Administrazio Orokorreko eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko zuzenbide pribatuko ente publikoen baterako gogoeta batetik abiatuta, eta haien bitartez, kide anitzeko organoekin, zehazki haietan idazkaritza-eginkizunak betetzen dituzten pertsonekin.

Ikuspegi hori, ondoren azaltzen dugun bezala, proiektuaren norainokoan eta metodologian gauzatu da, 3. eta 4. ataletan.



3. Irismena

3.1. Aplikazio-eremua

Jarduketa Egitasmoak bere aplikazio-eremuan hartzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren kide anitzeko organo guztiak, bai eta haren Administrazio Instituzionaleko erakunde autonomo eta zuzenbide pribatuko ente publikoenak ere.

Erakundea edo antolakundea	Saila
Eusko Jaurlaritza	Lehendakaritza
	Gobernantza Publikoa eta Autogobernua
	Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak
	Enplegua eta Gizarte Politikak
	Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza
	Ekonomia eta Ogasuna
	Hezkuntza
	Osasuna
	Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa
	Kultura eta Hizkuntza Politika
	Segurtasuna
	Lana eta Justizia
Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea	Lehendakaritza
Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua	Lehendakaritza
IVAP - Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea	Gobernantza Publikoa eta Autogobernua
Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzua	Enplegua eta Gizarte Politikak
Eustat - Euskal Estatistika Erakundea	Ekonomia eta Ogasuna
Lehiaren Euskal Agintaritza	Ekonomia eta Ogasuna
Kontsumobide - Kontsumoko Euskal Institutua	Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa
HABE - Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea	Kultura eta Hizkuntza Politika
Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia	Segurtasuna
Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea	Lana eta Justizia
Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia	Lehendakaritza
EEE - Energiaren Euskal Erakundea	Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak
Euskal Trenbide Sarea	Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak
URA - Uraren Euskal Agentzia	Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza
Finantzen Euskal Institutua	Ekonomia eta Ogasuna
Unibasq - Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentzia	Hezkuntza
Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua	Osasuna
EITB-Euskal Irrati Telebista.	Kultura eta Hizkuntza Politika
SPRI-Enpresa-garapenerako Euskal Agentzia	Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak
Etxepare Euskal Institutua	Kultura eta Hizkuntza Politika



Gainera, lanaren gauzatzea aprobetxatu da entitate juridiko berekia izan baina autonomia erkidegoaren politika publikoetan eragin nabarmena duten organo batzuen informazioaren inbentarioa egiteko; esate baterako, Gazteriaren Euskal Kontseilua edo Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren Aholku Kontseilua.

Alde batera utzita erabili ohi diren izen eta tresnen aniztasuna (kontseiluak, batzordeak, komiteak, patronatuak, foroak, behatokiak...), hauek sartu dira proiektuan: existentzia formalizatua duten kide anitzeko organoak, irauteko bokazioarekin sortuak eta egonkorak (ez gai jakin bat edo koiunturazko arazo bat konpondu edo eztabaidatzekoak), alegia, koordinazio eta/edo eztabaidarako guneak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko administrazio publikoaren eta haren administrazio instituzionalaren legitimazioa dutenak.

Horrenbestez, barruan sartu dira hasi sailen arteko koordinaziorako barne-organoetatik (Administrazioari lotutako langileek bakarrik osatuak), herritarren partaidetza banaka edo elkarteka duten kide anitzeko organoetaraino, erakunde autonomoen eta zuzenbide publikoko ente publikoen gobernu-organoei ere lekua utzita (administrazio-kontseiluak, zuzendaritza-kontseiluak, zuzendaritza-patronatuak...).

Menpekoak diren edo beste matrize batean integratuta dauden kide anitzeko organoak ere jaso dira, baldin eta denboran izaera iraunkorra eta ez aldi baterakoa badute, koiunturazko beharrian bati erantzuna emateko, haiek lantaldeetatik bereiziz.

Ez dira sartu, ordea, programa-kontratuen, hitzarmenen eta antzekoen jarraipen-batzordeak, ez eta klusterrak ere.

3.2. Parte-hartzaileak eta rolak

Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluari dagokio lanaren lidergoa eta sustapena; proiektuaren ardura eta bultzada, berriz, Administrazio Publikoen Batzorde Sektorialari: Kontseiluak, 2017ko urriaren 31n, honako hau erabaki zuen: "Azterlan bat egitea, Autonomia Erkidegoko hiru erakunde-mailek edo autonomia- eta toki-mailek parte hartzen duten kide anitzeko organoak arrazionalizatzeko eta Tokiko Politika Publikoen Kontseiluari aurkezteko, aintzat har ditzan".

Talde teknikoaren arduraduna, batzorde horretan lan honetarako idazkaritza teknikoa betetzen duena, Herritarrek Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzako proiektu-arduradun bat da. Zuzendaritza hori, gogora dezagun, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Erakunde Harremanetarako Sailburuordetzakoa da.



Aurreikusita dago honako kanpoko laguntza hauek edukitzea jarduketa egitasmoa betearazteko:

- EJIE, Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzaren urteko mandatuaren bitartez (aurrekontu orokorretan aurreikusita).
- Kanpoko kontratua, kasua bada, inkesta bat egiteko organo anitzeko kideak diren pertsonen, eta behar den analisia, ustiatzea eta datu-tratamendua egiteko (9.1.10 atala).

Lantaldeak	Parte-hartzaileak
Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseilua (lideratzen duen sustatzailea)	
Administrazio Publikoen Batzorde Sektoriala (lanak egitearen eta kontseiluari proposamenak aurkeztearen arduraduna)	• Idazkaritza teknikoa: Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza (Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza)
Proiektuaren lantaldea (proiektua garatzen duena)	• Proiektuaren arduradun teknikoa: Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza, Erakunde Harremanetarako Sailburuordetza (PEGIP 2020) • Lankidetzat-talde Teknikoa: sail, erakunde eta ente guztiak
Kanpoko laguntzako lantaldeak (ezarritako prozesuetan laguntza ematen dutenak)	• EJIE: Izapidetze elektronikorako plataforma aldatzea • Kanpo-kontratazioa: Inkesta eta datuen tratamendua

3.3. Noiztik noiz arte

Lana egiazki 2018ko urtarriletik aurrera egin da (2017tik, ordea, prestakuntzako barneko lan batzuk egin ziren Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailean), eta aurreikusita dago, printzipioz, 2020ko abenduan amaitzea, PEGIP 2020ren indarraldiarekin bat (nahiz eta kide anitzeko organoetarako jarduketa-proposamen jakin batzuk, agian, 2021era luzatu beharko diren).


3.4. Gauzatze-faseak

Proiektuak fase hauek ditu:

1. Abian jartzeko fasea
2. Kide anitzeko organoen inbentario-, analisi- eta kontraste-fasea
3. Kide anitzeko organoen ebaluazio- eta diagnostiko-fasea



- Gainera, aldaketaren kudeaketa eta proiektuaren jarraipena eta ebaluazioa fase iraunkorrak dira, eta proiektuaren gauzatze osoa hartzen dute.



3.4.1. Abian jartzeko fasea

- Proiektuaren planteamendu-proposamena, norainokoa eta metodologia.
- Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak proiektua baliozkotzea.
- Gobernantza, Gardentasun eta Partaidetzarako Sailarteko Batzordeak proiektua aurkeztea Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluari eta Administrazio Publikoen Batzorde Sektorialari, eta hura baliozkotzea.
- Proiektuaren laneko eta jakintzaren kudeaketa partekaturako lankidetzagunea eraikitzea (4.2 atala).

3.4.2. Inbentario-, analisi- eta kontraste-fasea

A. Aurretik zegoen informazioa eta dokumentazioa bildu

Kide anitzeko organoen eta haien kideen informazio-eremuak ezartzeko arau-
esparruari buruzko analisi bat egin da:



- [2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa](#)
- [40/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena](#)

Halaber, [Demokraziari eta herritarren parte-hartzeari buruzko Euskadiko Liburu Zuria](#)

Gainera, hasieratik, lehendik hainbat zerrenda eta informazio-iturritan zegoen informazioa honako hauetan irauli da:

- Euskadiko Udalen Elkartea-Asociación de Municipios Vascos
- Tramitagune, izapidetze elektronikorako plataforma komuna
- Lehendakaritzako Koordinazio Zuzendaritza
- Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Zerbitzu Juridikoa

B. Sailetako egiturei eta eginkizunei buruzko dekretuekiko alderaketa

Beste informazio-iturri batzuetatik lortu den behin-behineko inbentarioa kontrastatu da Eusko Jaurlaritzako sailetako egiturei eta eginkizunei buruzko dekretuekin, eta egiaztatu da horietako batzuetan ez direla jasotzen indarrean diren kide anitzeko organo guztiak.

C. Alderdi juridikoen, estatistikoen, partaidetzari buruzkoen eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzkoen kontrastea

Proiektuko alderdi guztiak diseinatu eta planteatzeko, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren honako unitate administratibo hauekin lan egin da:

- Zerbitzu juridikoa: alderdi juridikoak
- Organo Estatistikoa: datuen tratamendua, analisisa eta ustiatzea eta balorazio-inkesta
- Berdintasuneko teknikaria: emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna
- *PEGIP 2020*ko 1. ardatzeko proiektuen Herritarrek Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzako arduraduna (Gardentasuna eta Gobernu Ona): herritarren parte-hartzeari buruzko alderdiak
- Euskararen ardura duen teknikaria



- Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzako Aholkularitza Juridikoa

D. Lankidetza-talde Teknikoaren (LTT) eraketa

Lankidetza-talde tekniko (LTT) bat eratu da sail, erakunde autonomo eta zuzenbide pribatuko ente publiko bakoitzak izendatutako pertsonekin.

4.1 atalean talde horren osaera zehazten da, bai eta parte-hartzaileen rolak ere, eta horrek ideia bat ematen du proiektuaren norainokoari eta dimentsioei buruz eta hartan inplikaturako pertsonen kopuruari buruz.

E. LTTk informazioa alderatzea, gaurkotzea eta baliozkotzea

Lankidetza-talde Teknikoak kide anitzeko organoei buruzko eta haien kideei buruzko abiapuntuko informazioa berrikusi eta alderatu du, eta hura osatu, zuzendu eta aldatu du behar zen guztian.

Lan horrek ahalegin handia eskatu du, denboraren ikuspuntutik ez ezik, katean inplikaturako pertsonen kopuruari dagokionez ere, eta une batzuetan 81 pertsonak parte hartu izan dute.

F. Kide anitzeko organoetako eta haien kideen inbentarioaren eta informazio-fitxak foru aldundiekin eta Euskadiko Udalen Elkartearekin kontrastatzea

2018ko maiatzean, Euskadiko Udalen Elkarteari, haren antolamendu buruaren bitartez, udal ordezkaritza zuten kide anitzeko organo guztien eta haien kide guztien zerrendak eta informazio-fitxak eskuratu zitzaizkion, informazioa alderatu eta Euskadiko Udalen Elkarteek bere ekarpenak egin zitzaizkion.

Halaber, 2018ko ekainaren 28an, proiektuaren inbentario-, analisi- eta kontraste-faseari buruzko informazio eskuragarri guztia eman zitzaion bai foru aldundiei, bai Euskadiko Udalen Elkarteari.

3.4.3. Ebaluazioaren eta diagnostikoaren fasea

- Kide anitzeko organo bakoitzaren jarduera- eta ebaluazio-fitxa
- Kide anitzeko organoen hainbat alderdiri buruzko sailekiko, erakunde autonomoekiko eta zuzenbide pribatuko ente publikoekiko analisia eta balorazioa:



- Juridikoa edo arauemailea
 - Eginkizunak eta izaera
 - Erregelamenduak eta funtzionamendua
 - Antolamenduzko atxikitzea
 - Egitura eta osaera
 - Baliabideak eta tresnak
 - Jarduera eta egindako lana
 - Politika publikoen definizio, jarraipen eta ebaluazioaren gaineko eragina
 - Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna
- Euskadiko Demokraziari eta Herritarren Partaidetzari buruzko Liburu Zuriaren hedatzea ongi txertatu den baloratzea: zer balio eman diezaioketen liburu horri edo parte-hartzerako oztopo bat izan daitezkeen; genero-ikuspegia jasotzea, eta abar
 - Organo batzuk Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluan sartzearen bideragarritasuna aztertzea
 - Antolamenduaren koherentzia eta arrazionaltasuna ebaluatzea
 - Egungo agertokiaren indarguneak eta ahulguneak
 - Epe laburrerako erronkak eta desafioak

Eusko Jaurlaritzako sail, erakunde autonomo eta zuzenbide pribatuko ente publiko bakoitzeko kide anitzeko organoen ebaluazioa eta diagnostikoa baterako lanaren bidez egin dira, horietako bakoitzarekin bertatik bertara egindako bileretan, honako helburu hauekin:

- Kide anitzeko organo bakoitzaren eta haien kideen informazio- eta jarduera-fitxetako informazioa alderatzea
- Diagnostikoa partekatzea
- Kide anitzeko organo jakinetarako berariazko neurriak adostea

Berariaz egindako analisia, ebaluazioa eta diagnostikoa sail, erakunde autonomo eta zuzenbide publikoko ente publiko bakoitzerako dokumentatu da (ikus *“Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Administrazio Orokorreko eta haren Administrazio Instituzionaleko kide anitzeko organoen ebaluazioaren eta diagnostikoaren oroitidazkiak”*).



Ikusten da guztiz minoritarioa dela langileak esleituta egotea organoko Idazkaritzarenaz beste eginkizun batzuetan, eta horrek esan nahi du txostenak eta bilerak egitea ez diren bestelako eginkizunak ez direla neurri berean bultzatzen. Beste eginkizun horiek gauzatu daitezten sustatzeko, Administrazioaren halako proaktibotasun bat behar da, bileretarako dei egiteaz eta aktak egiteaz harago.

8.3.6. Erabakiak

Sail, erakunde eta enteei emandako datuak ustiatuta, honako emaitza hau lortu dugu:

Maiztasuna	Kide anitzeko organoen kopurua		
	Baiezkoa	Adostasuna	Bozketa
Askotan	8	10	4
Zenbaitetan	19	17	17
la inoiz ez	20	4	41
la beti	16	54	6
Inoiz ez	45	21	44
Beti	10	64	34
Informaziorik gabe	113	61	85
Guztira	231	231	231



Emaitza hori ez da nabarmenki eztaba daezina, bi arrazoi hauek direla eta:

- Kide anitzeko organoen kopuruaren datua falta delako, zeina oso handia baita.
- Kasu askotan erabakiak hartzeko metodo moten maiztasunez buruzko datuak inkoherentziaz eta kontraesanetan eroriz bete direlako.



Oso interesgarria izango litzateke eta ebaluazioari balioa emango lioke kide anitzeko organoaren izaerari eta erabakiak hartzeko metodoari buruzko dimentsioen gurutzatzearen gaineko analisia egitea, batez ere haien parte-hartzearen osagaiari erreparatuta. Horri dagokionez, badirudi komeni dela hura kontuan hartzea zeharkako jarduketaren proposamenetan.

8.3.7. Erakundearen koherentzia eta arrazionaltasuna

Kide anitzeko organo guztietarako eta sail, erakunde autonomo eta zuzenbide pribatuko ente publiko bakoitzarentzako “*Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Administrazio Orokorreko eta haren Administrazio Instituzionaleko kide anitzeko organoen ebaluazioaren eta diagnostikoaren oroitidazki*” berariazkoetan taula bat ere jasotzen da, antolakuntzaren koherentziaren eta arrazionaltasunaren ebaluazioa jasotzen duena, bai eta honako hauek ere: Euskadiko Demokraziari eta Herritarren Partaidetzari buruzko Liburu Zuriaren hedatzearen txertatzea (zer balio eman diezaioketen liburu horri edo parte-hartzerako oztopo bat izan daitezkeen), genero ikuspegiaren integrazioa eta organoak Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluan sartzearen bideragarritasunari buruzko balorazioa; adibidez:

Organo kolegiado	Coherencia y racionalidad de la organización existente						Actividad, trabajo e impacto	Perspectiva de calidad	Libro Blanco	Integración en CVRPP ⁴
	Mercado jurídico y normativo	Fórmulas y naturaleza	Reglamentación y funcionamiento	Estructura y composición	Adaptación organizativa	Recursos y herramientas				
Comisión Interinstitucional para la Inclusión Social	Mejorable Conviene desarrollo normativo previsto en la Ley	Mejorable Conviene cambiar naturaleza	Mejorable (RFI)	Correcto	Correcto	Mejorable (Dotación personas Herramientas colaborativas)	No se puede valorar con la información suministrada	Mejorable	No aplica	No
Comisión Permanente Sectorial para la Atención a la Infancia y a la Adolescencia	Correcto	Correcto	Mejorable (RFI)	Correcto	Correcto	Mejorable (Dotación personas Herramientas colaborativas)	Mejorable	Mejorable	No se puede valorar con la información suministrada	No
Comisión Técnica de Adopción Internacional	Mejorable Conviene desarrollo normativo del artículo 11 del Decreto	Correcto	Mejorable (RFI)	Correcto	Correcto	Mejorable (Dotación personas Herramientas colaborativas)	Correcto	Mejorable	No se puede valorar con la información suministrada	No aplica
Comisión Técnica Interinstitucional de Atención Temprana	Correcto	Mejorable Conviene cambiar naturaleza	Mejorable (RFI)	Correcto	Correcto	Mejorable (Dotación personas Herramientas colaborativas)	Mejorable	Mejorable	No aplica	No
Consejo Asesor de Mediación Familiar	Correcto	Correcto	Mejorable (RFI)	Correcto	Correcto	Mejorable (Dotación personas Herramientas colaborativas)	Mejorable (no se reúne el nº mínimo de ocasiones)	Mejorable	No se puede valorar con la información suministrada	No
Consejo Interinstitucional de Atención Temprana	Correcto	Mejorable Conviene cambiar naturaleza	Mejorable (RFI) El Decreto data en plazo de 6	Correcto	Correcto	Mejorable (Dotación personas Herramientas colaborativas)	Mejorable	Mejorable	No aplica	No

Egindako balorazioen terminoak kualitatiboak dira, zeren eta informazio mugatu batetik abiatu baitira, eta ez aldez aurreko helburu jakin batzuk betetzean oinarritutako egiazko adierazleetatik, inplikaturako erakunde guztiek kide anitzeko organoen gaineko ebaluazioan eta kontu-ematean, inplikaturako erakunde guztietan, duten esperientzia falta dela eta.

Honako hauek izan dira baloraturako atalak:


- Esparru juridikoa eta arau-esparrua



- Eginkizunak eta izaera
- Erregelamenduak eta funtzionamendua
- Egitura eta osaera
- Antolamenduzko atxikitzea
- Baliabideak eta tresnak

Sail, erakunde autonomo eta ente bakoitzeko kide anitzeko organo bakoitzerako lortutako emaitzen laburpena haiei buruzko berariazko laburpenetan jasota daude.

Orokorrean, kide anitzeko organo guztiak hartuta, honako hau da laburpena:






Antolamenduzko atxikitzea



Baliabideak eta tresnak



Horrenbestez, ondorioztatzen da ondokoak direla balorazio onena jaso duten alderdiak

- a) *Eginkizunak eta izaera.*
- b) *Antolamenduzko atxikipena, zeren eta "hobetzeko modukoa" den alderdi hori duten kide anitzeko organoen % 29, gehienetan, Politika Publikoen Euskal Kontseiluan sartzeari buruzkoa baitira.*

Esparru juridikoa eta arau-esparrua eta egitura eta osaera ataletan, kasuen % 30 inguru hobetzeko modukoak dira.

Baliabideak eta tresnak alderdia da hobekuntzarako tarte handiena duena.

8.3.8. Jarduera, egindako lana eta politika publikoan duen inpaktua

Kide anitzeko organo bakoitzerako, jarduera- eta ebaluazio-fitxak honako atal hauek dauzka:

8. JARDUERA

8.1. AZKEN 4 URTEETAN EGINDAKO BESTE LAN ETA JARDUERA BATZUK LABURBILTZEN DITU (EZ BILERAK ETA TXOSTENAK, AURREZ AIPATU BAITIRA)

9. ERAGINA

9.1. POLITIKA SEKTORIALAREN DEFINIZIOAN, JARRAIPENEAN ETA EBALUAZIOAN DUEN INPAKTUA (EMAITZAK, PRODUKTUAK ETA MUGARRIAK JASOTZEN DITU, BAI ETA, KASUA BADA, HELBURUEN ADIERAZLEAK ERE)

Haien betetze-maila honako hau izan da:



Ebaluatutako dimentsioa	Bete diren kide anitzeko organoen kopurua	% Bete diren kide anitzeko organoak
Lana eta egindako jarduera	127	55
Politika publikoan / jarduketa-arloan izan duen inpaktua	70	30

Kide anitzeko 231 organoetatik, 85ean (% 37) ez da bi dimentsioetatik bakarra ere bete.

Sail, erakunde eta enteei erreparatuta, ondokoa izan da dimentsio horien betetze-maila:

Saila / Erakundea / Entea	Kide anitzeko organoen kopurua	Lana		Eragina	
		bete gabe	%	bete gabe	%
Kultura eta Hizkuntza Politika	20	6	30	4	20
Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak	16	8	50	6	38
Hezkuntza	7	2	29	4	57
Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea	8	4	50	6	75
Enplegua eta Gizarte Politikak	23	15	65	23	100
Gobernantza Publikoa eta Autogobernua	15	4	31	6	38
Ekonomia eta Ogasuna	17	5	29	11	65
Kontsumobide - Kontsumoko Euskal Institutua	1	0	0	1	100
Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzua	1	1	100	1	100
Lehendakaritza	14	5	36	2	14
Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza	16	8	50	13	81
Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua	12	2	17	12	100
Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea	3	0	0	0	0
Osasuna	27	10	37	0	0
Segurtasuna	15	11	73	8	53
Lana eta Justizia	6	1	17	3	50
Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa	3	1	33	3	100
Unibasq - Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentzia	24	20	83	22	92
Uraren Euskal Agentzia	2	0	0	0	0
Guztira	231	104	45	151	65

Bestalde, betetako kasu gehienetan, emandako informazioa oso orokorra da, errepikatu egiten baitira kide anitzeko organorako arauan aipatzen diren eginkizunak edo kasuen aplikazio-eza aipatzen duten iruzkin laburrak.



8.3.9. Demokraziari eta herritarren parte-hartzeari buruzko Euskadiko Liburu Zurian duen tokia

Liburu Zuriak bere zabalkunde-konpromisoen artean honako hau dakar: “*Euskadin dauden prozesu parte-hartzaileen parte eta kanal formalen inguruan azterketa kritikoa egitea. Nabarmentzekoa da zer garrantzitsua den administrazio-egituretan integratutako kontseilu eta organo parte-hartzaileek / aholku-emaileek berrikusketa-lana egitea, Liburu Zuria hedatzeko bidean ongi txertatzen ote diren ikusteko: alegia, zer balio ekar diezaioketen aztertzeko edo, areago, parte hartzeko traba gerta ote daitezkeen jakiteko*”.

Hori dela eta, ebaluatutako kide anitzeko organoen jarduera- eta ebaluazio-fitxa bakoitzean kasuko atala aurreikusi da:

9. ERAGINA

9.2. HONAKO HONEN HEDATZEAK IZANGO DUEN TOKIA: [EUSKADIKO DEMOKRAZIARI ETA HERRITARREN PARTAIDETZARI BURUZKO LIBURU ZURIA](#) (ZER BALIO EMAN DIEZAIOKETEN LIBURU HORRI EDO PARTE-HARTZERAKO OZTOPO BAT IZAN DAITEZKEEN)

Honako hau izan da haren betetze-maila:

Ebaluatutako dimentsioa	Kopurua Bete diren kide anitzeko organoak	% Bete diren kide anitzeko organoak
Demokraziari eta herritarren parte-hartzeari buruzko Euskadiko Liburu Zurian duen tokia	70	30

231 kide anitzeko organoetatik, 161ean (% 70) ez da bete

Sail, erakunde eta enteei erreparatuta, ondokoa izan da dimentsio horren betetze-maila:

Saila / Erakundea / Entea	Kide anitzeko organoen kopurua	Liburua	
		bete gabe	%
Kultura eta Hizkuntza Politika	20	5	25
Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak	16	5	31
Hezkuntza	7	5	71
Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea	8	7	88
Enplegua eta Gizarte Politikak	23	22	96
Gobernantza Publikoa eta Autogobernua	15	6	44
Ekonomia eta Ogasuna	17	17	100



Kontsumobide - Kontsumoko Euskal Institutua	1	1	100
Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzua	1	1	100
Lehendakaritza	14	3	21
Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza	16	9	56
Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua	12	12	100
Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea	3	0	0
Osasuna	27	27	100
Segurtasuna	15	11	73
Lana eta Justizia	6	2	33
Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa	3	3	100
Unibasq - Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentzia	24	24	100
Uraren Euskal Agentzia	2	0	0
Guztira	231	161	70

Bestalde, betetako kasu gehienetan, emandako informazioa oso orokorra da, errepikatu egiten baitira kide anitzeko organorako arauan aipatzen diren eginkizunak edo kasuen aplikazio-eza aipatzen duten iruzkin laburrak.

Horregatik guztiagatik, Liburu Zuria hedatzeko konpromisoa, horri dagokionez, egiteko dagoen lan baten gisara har daiteke²⁷.

8.3.10. Egungo agertokiaren indarguneak eta ahulguneak

Indarguneak / Aukerak	Ahulguneak
1. <u>Euskal sektore publikoaren antolaketaren eta funtzionamenduaren Legearen Proposamena</u> , gaur egun izapidetzen ari dena; bertan, berariazko artikulua batzuk badaude kide anitzeko organoei buruz eta herritarren eta elkartearen parte-hartzerako gune egonkorrei buruz. (Eusko Legebiltzarrak euskal autonomia-esparruko kide anitzeko organoei erregulazio bat emateko duen borondatearen adierazpen gisa)	1. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Administrazio Orokorreko eta haren Administrazio Instituzionaleko kide anitzeko organoei buruzko arapetze propiorik ez egotea.
2. PEGIP 2020 egitasmoa 6.4 proiektua. Jarduketa Egitasmoaren aurkezpena	2. Gaur arte kide anitzeko organoen inbentariarik eta ezaugarrien bildumarik ez egotea
3. Jarduketa Egitasmo honek gogoetarako aukera ematea	3. Kide anitzeko organoen sorrera, haien beharrari, komenigarritasunari eta egokitasunari buruz edo haiek lanerako eta koordinaziorako arinagoak diren mekanismoekin ordeztzeko aukerari buruz behar adinako gogoeta egin gabe.

²⁷ 9.1.6 atalean horri buruzko jarduketa bat jaso da.



4. Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea , eta Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseilua	4. Behar baino gehiagotan honako kasu hauek gertatzen dira: sailarteko, erakundearteko eta herritarrekiko kide anitzeko organoak izatea, eta, aldi berean, kide anitzeko organo tekniko homologoak egotea eta azken horiek lantaldeak edukitzea. Gainera, horri gehitu behar zaio, batzuetan, organo horiek osoko bilkuraren eta batzorde iraunkorraren bidez funtzionatzen dutela.
5. Arau-xedapen orokorrak egiteari buruzko Lege-proiektua	5. Kide anitzeko organo askok gehiegizko dimentsioa dute (kide kopuru oso handia)
6. 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoa eta IV. Berdintasun Plana	6. Kide anitzeko organo askoren funtzionamenduari buruzko arau propiorik ez dago, ez haien sorrerari buruzko arauetan, ez garapeneko arauetan, ez eta barne funtzionamenduko erregelamenduan ere.
7. Euskal Autonomia Erkidegoko Gardentasunari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Lege-proposamena (Eusko Legebiltzarrak euskal autonomia-esparruko kide anitzeko organoei erregulazio bat emateko duen borondatearen adierazpen gisa)	7. Arau bidez asmo oso onak dituzten konpromiso eta betebeharrak ezartzen dira, gero betetzen ez direnak (azterlanak eta proposamenak egiteko eginkizunak, bileren maiztasuna...)
8. Demokraziari eta Herritarren Parte Hartzeari buruzko Euskadiko Liburu Zuria	8. Lanerako dinamika Administrazioaren erritmoen mende dago guztiz : hauteskundeetako egutegiak betetzea, kargudunak izendatzea...
9. Prozedura gehienak eta haien izapidetze elektronikoa izapidetze elektronikorako plataforma erkidean, Tramitagunen , digitalizatzen dira.	9. Plangintzak egiteko kulturarik ez egotea, eta, batez ere, eraginkortasuna, efizientzia, emaitzak eta jarduketa-arlo bakoitzak politika publikoan duen inpaktua ebaluatzeko kultura falta izatea.
10. Euskal sektore publikoaren antolaketaren eta funtzionamenduaren Legearen Proposamenean aurreikusita dago kudeaketari buruzko urteko oroitidazkiak nahitaezkoak izatea (Eusko Legebiltzarrak euskal autonomia-esparruko kide anitzeko organoei erregulazio bat emateko duen borondatearen adierazpen gisa)	10. Kide anitzeko organoen izaera dela-eta argitasuna falta izatea, batez ere haien partaidetako osagaiari dagokionez, ulertuta azken hori herritarrei eta kide anitzeko organoen lerrokatzeari lotuta dagoela gobernantza publikoaren erudian.
11. Gardena Gardentasun Ataria	11. Kasu ia guztietan kide anitzeko organoen txostenaren peko espedienteen izapidetze elektronikorari lotutako lan egiteko modu birtualak, on line erakoak, eta lankidetzatresnak falta izatea.
12. Kide anitzeko organoen esperientzia egotea ia jarduketa-arlo eta politika publiko guztietan.	12. Kide anitzeko organoen urteko lanari buruzko kontu-ematerik ez egotea.
13. Kargu publikoetako postuei lotutako jarduera publikoen katalogoa aurreikusita egotea Kargu publikodunen betebeharrak eta eskubideei buruzko azaroaren 15eko 156/2016 Dekretuan (10. artikulua).	14. Kide anitzeko organoei eta, berariaz, hainbat kontzepturengatik konpentsazio eta kalte-ordain aurrekontu-kudeaketari tratamendu heterogeneoa ematea.
	15. Kide anitzeko organoen lana ikusgarri ez bihurtzea eta hari publizitate aktiborik ez ematea.



16. **Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren** alderdiak gutxi integratzea.

17. **Ukitutako eragile** guztiek kide anitzeko organoei buruz egiten duten **balorazioa** ez ezagutzea.

8.3.11. Erronka eta desafio nagusiak

A. Erronka eta desafio orokorrak

1. Kide anitzeko organoen inbentarioa, haietako kideen inbentarioa eta haien jarduera-fitxak **osatzea**, oraindik halakoak egiteke dauden kasuetan.
2. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Administrazio Orokorreko eta haren Administrazio Instituzionaleko **kide anitzeko organoen kudeaketa sistema** etengabe gaurkoturik edukitzea.
3. Kide anitzeko organoak **sortu, iraunarazteko eta azkentzeko irizpide eta jarraibideak** zehaztea, betiere, legeak eta aplikatu beharreko gainerako arauak errespetatuz.
4. Organo ez-aktiboen iraungitzea edo azkentzea sustatzea, aplikatu beharreko araudiaren arabera.
5. Kide anitzeko organo batzuen **ordez**, lanerako eta koordinaziorako mekanismo arinagoak eta ez hain formalak jartzea (indarrean dauden arau-xedapenak betez) komunikazio iraunkor eta azkarra sustatuz, eta aldi baterako lantaldeak edo lotura-mekanismo formalizatuak soilik beharrezkoa den neurrian sortuz.
6. Gaur egungo kide anitzeko organoak **soiltzea**, fusioaren bidez edo/eta haiek Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluan integratuz, indarrean dagoen araudiaren arabera.
7. Kide anitzeko organo diagnostikatuen **arau-esparrua** gaurkotu eta garatzea, hala dagokionean, eta betiere aplikatu beharreko araudiak baimentzen duen moduan.
8. Kide gehiegi dituzten kide anitzeko organo aktiboak **berriz dimentsionatzea**, beharrezkoak diren sektore eta antolakuntzen ordezkaritza galdu gabe eta haien osaera doituz.
9. Emakumeen eta gizonen berdintasunaren ikuspegia duten kide anitzeko organoen barne-funtzionamenduko erregelamenduetarako irismen- eta egitura-



ereduak ezartzea, bai eta jarraibide orokorrak ere, kontuan hartuta organo horiei esleitutako eginkizunak, ordezkaturako sektore eta administrazio publikoak eta horien izaera.

10. Kide anitzeko organoen – dauden zein etorkizuneko – Txostenen beharrari edo egokitasunari buruzko benetako hausnarketa sustatzea, batez ere arau-xedapen orokorrak egiteko eta onartzeko prozeduran.
11. Administrazioak berak modu proaktiboan txostenez bestelako aholku **eginkizunak sustatu eta bultzatzea**, bai eta azterlan eta proposamenak egitekoak ere, organo bakoitzak arautzen duen araudiak eginkizun horiek esleitzen dituenean.

Bistan da guztiz minoritarioa dela kide anitzeko organoei langileak esleitzea idazkaritzarenaz beste eginkizunetarako; horrek esan nahi du ez direla neurri berean sustatzen eta bultzatzen txostenak eta bilerak egiteaz gainerako eginkizunak. Beste eginkizun horien gauzatzea sustatzeko, Administrazioaren halako proaktibotasun bat behar da, bileretarako dei egiteaz eta aktak egiteaz harago.

12. Kide anitzeko organoen **kudeaketari eta jarduerari buruzko urteko oroitidazkien** egitura eta gutxieneko irismena ezartzea, azterketa konparatuak eta ebaluazio koherente eta esanahidunak bideratzeko, horien bidez erabaki arinak hartu ahal izateko.
13. Herritarren partaidetza duten kide anitzeko organoak zehaztea, partaidetza hori banakakoa zein elkarleen bidezkoa izan, eta haien kide direnek kide anitzeko organo horien balorazioa egitea **Euskadiko Demokraziari eta Herritarren Partaidetzari buruzko Liburu Zuria** hedatzearen esparruan.
14. [Gardena](#) Gardentasun Atarian kide anitzeko organoen informazioari eta jardueraren kontu emateari buruzko **publizitate aktiboa egitea**.
15. **Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren** alderdiak integratzea kide anitzeko organoen egituran, osaeran eta funtzionamenduan.
16. Kide anitzeko organo guztietarako **on line erako lankidetzarako lan-tresnak** ezartzea, izapidetze elektronikorako **Tramitagune** plataformarekin elkarreraginez.



17. Kide anitzeko organoen **aldizkako ebaluazioak** egitea, egitura horien eta haien jardueraren jarraipena bideratzen duen adierazleen sistema baten bitartez.

Gainera, *PEGIP 2020* planaren 6.4 proiektuaren helburu operatiboa, “inplikaturako eragile guztiek (administrazioa, kide anitzeko organoetako eta entitateetako kideak) kide anitzeko organoen gaur egungo eta etorkizuneko egoerari buruz daukaten iritzia ezagutzea”, oraindik ere betetzeko dago, ezin izan baita egin administrazio publikoez beste hirugarren batzuen partaidetza duten kide anitzeko organoetako kide titularren balorazio-inkesta, zeren eta indarrean sartu baitira datu pertsonalen babesari buruzko arau-xedapen berri batzuk, zuhertasunez aztertu eta aplikatu behar direnak.

B. Sail, erakunde eta enteen arabeko berariazko erronkak

“Kide anitzeko organo guztietarako eta sail, erakunde autonomo eta zuzenbide pribatuko ente publikoentzako berariazko ebaluazio- eta diagnostiko-oroitidazkiak” izenekoetan kide anitzeko organo bakoitzarentzako analisia, diagnostikoa eta berariazko ebaluazioa ikus badaiteke ere, hemen berariazko erronka nagusiak aipatuko ditugu sail, erakunde eta enteen arabeko kide anitzeko organoen ebaluazioaren laburpen gisa.

“Kide anitzeko organo batzuetan kide kopurua murriztea” aipatzen den kasuetan, ulertzen da erronka horrek ez duela murriztu edo eragin negatiborik izan behar herritarrek erabakiak hartzeko prozesuetan eta politika publikoetan duten parte-hartzean.

Saila / Erakunde autonomoa / Entea	Erronka nagusiak
Kultura eta Hizkuntza Politika	▪ Kide anitzeko organoen kudeaketa-sisteman sartzeara oraindik ere sartu ez direnak ▪ Euskararen jarduketa-arloko kide anitzeko organoei buruz gogoeta egite; izan ere, 5 Euskararen Aholku Batzordearen batzorde bereziak badira ere, kide anitzeko 11 organo badaude ▪ Gogoeta egitea jarduerarik ez duten kide anitzeko organo batzuk iraunaraztea komenigarria eta egokia izateari buruz (ikus 9.2.3 atala) ▪ Hizkuntza politikaren arloko Herri Aginteak Koordinatzeko Batzordearen arau-esparrua onestea. HAKOBA²⁸ ▪ Kide anitzeko organo batzuetako kide kopurua gutxitzea ▪ Kide anitzeko organo batzuen arau-esparrua gaurkotzea


²⁸ HAKOBA 1997an sortu zen, Eusko Jaurlaritzaren ekimenez, hizkuntza politikaren arloko eskumenak dituzten administrazio publikoen jarduketa koordinatzeko. Hainbat aldiz aipatzen da [Euskara Biziberritzeko Plan Nagusian](#), zeina Eusko Jaurlaritzaren 1998ko uztailaren 28ko Gobernu Batzordeak onetsi baitzuen, baina haren eginkizunak eta osaketa jasoko dituen arau baten babesa falta baitu.



Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak	▪ Kide anitzeko organoen kudeaketa-sisteman sartzeara oraindik ere sartu ez direnak ▪ Kide anitzeko organoen kudeaketa-sisteman sartzeara kide anitzeko organoetako kideei buruz falta den informazioa ▪ Kide anitzeko organo guztietako informazio-fitxetako "izaera" eremuko datu guztiak kontrastatzea ▪ Kontrastatzea zergatik kide anitzeko organo guztietan ez dagoen informazio osorik aurrekontuei eta kalte-ordainei buruz ▪ Kide anitzeko organo batzuetako kide kopurua gutxitzea ▪ Gogoeta egitea kide anitzeko organoen jarduketa-arloetako partaidetza-alderdiei buruz (15etik 12an, % 80an, soilik administrazioak eta sektore publikoa daude ordezkaturak) ▪ Gogoeta egitea Euskadiko Agregakinen Mahaiko Lantaldean egotea komenigarria eta egokia izateari buruz (ikus 9.2.3 atala) ▪ Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Plan Orokorraren Batzordearen eta Landaberriren arau-esparrua gaurkotu eta garatzea
Hezkuntza	▪ Kide anitzeko organoen kudeaketa-sisteman sartzeara oraindik ere sartu ez direnak ▪ Kide anitzeko organoen kudeaketa-sisteman sartzeara kide anitzeko organoetako kideei buruz falta den informazioa ▪ Kide anitzeko organo batzuetako kide kopurua gutxitzea ▪ Musika Irakaskuntzen Aholku Batzorderako eta Euskadiko Eskola Kontseilurako konpentsazioei eta kalte-ordainei buruzko Gobernu Kontseiluaren Erabakia onestea. Azken kasu horretan, aurrekontu propioa ematea ▪ Kide anitzeko organo batzuen arau-esparrua gaurkotzea
Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea	▪ Kide anitzeko organoen arau-esparrua gaurkotzea eta arau juridikoa ematea de facto — Aholku Batzordeari buruzko Dekretuaren 4. artikuluan ezarritako 12 aholkurako azpibatzerdeen ordezkari egiazki existitzen diren aholku batzordeko lurraldekako azpibatzerdeei
Enplegua eta Gizarte Politikak	▪ Kide anitzeko organo batzuetako kide kopurua gutxitzea ▪ Oraindik ere onetsi gabe dauden kide anitzeko organo batzuetarako legean aurreikusitako araugintza-garapenak ▪ Kide anitzeko organo batzuetako kide kopurua gutxitzea ▪ Kasu batzuetan arauan ezarrita dauden aldiak bilerak betetzea ▪ Koherentzia izatea Euskal Autonomia Erkidegoko herritar etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroko batzordeen osaketan
Gobernantza Publikoa eta Autogobernua	▪ Fundazioen Euskal Kontseilua eta Koordinazio Juridikoaren Batzordea eratu eta eraginkor egitea ▪ Kide anitzeko organo batzuen arau-esparrua gaurkotu eta garatzea ▪ Segurtasun eta Pribatasun Batzorde Korporatiboari idazkaritza bat esleitzea ▪ Kide anitzeko organo batzuen jardura bultzatzea ▪ Gogoeta egitea jarduerarik ez duten kide anitzeko organo batzuk iraunaraztea komenigarria eta egokia izateari buruz (ikus 9.2.3 atala)
Ekonomia eta Ogasuna	▪ Gogoeta egitea estatistikaren arloko kide anitzeko organoei buruz eta haietako kideak diren pertsonen kopurua gutxitzei buruz ▪ Kide anitzeko organo batzuen arau-esparrua gaurkotzea ▪ Enpleguaren Gizarte Aurreikuspenaren Sektoreko Batzordearen jardura sustatzea, gizarte aurreikuspen osagarriaren orokortze-proiektuaren proposamenak enplegu-sistemen bidez artikulatu eta garatzeko ▪ Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren esparruan Bahitutako Ondasunen Besterentzerako Enkante Mahaiaren jardura babesteko araua ematea
Kontsumobide - Kontsumoko Euskal Institutua	▪ Kontsumoko Kontsulta Batzordean arauan jasotako proposamen- eta azterketa-ildoak indartzea
Lanbide	▪ Gogoeta egitea jarduerarik ez duten kide anitzeko organo batzuk iraunaraztea komenigarria eta egokia izateari buruz (ikus 9.2.3 atala)
Lehendakaritza	▪ Bilerak joateagatik kalte-ordainak erregulatzea, Garapen Lankidetzarako Euskal Kontseiluko Gobernu Kontseiluaren erabaki baten bitartez ▪ Kide anitzeko organo batzuen sisteman jasotako arau-esparrua eta izaera berrikustea



Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza	▪ Kide anitzeko organo batzuetako kide kopurua gutxitzea ▪ Kide anitzeko organo batzuen arau-esparrua gaurkotzea ▪ Hiri Hondakinen Koordinazio Organoan (HHKO) udalek duten ordezkari buruz gogoeta egitea ▪ Gogoeta egitea jarduerarik ez duten kide anitzeko organo batzuk iraunaraztea komenigarria eta egokia izateari buruz (ikus 9.2.3 atala)
Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua	▪ Kide anitzeko organo batzuetako kide kopurua gutxitzea ▪ Kide anitzeko organoek sisteman duten arau-esparrua berrikustea
Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea	▪ Osalanen Kontseilu Nagusiaren jardura bultzatzea, bileren maiztasuna dela-eta arauan ezarritakoari eutsiz gutxienez, eta txostenak ezartzeaz haratago doazen eginkizunen gauzatzea indartuz ▪ Enpresen konfederazioaren, sindikatuen edo kooperatiben funtzionamenduari dagozkion gastuak finantzatzera bideratutako dirulaguntza izendunen bitarteko konpentsazioak mantentzeari buruz gogoeta egitea, <i>Osalanen Kontseiluan eta haren batzordeetan parte hartuz betetzen dituzten eginkizunak direla eta</i> ▪ Osalanen Kontseilu Nagusiaren Prestakuntza Batzordea eta Osalanen Kontseilu Nagusiaren Kudeaketa Planaren Jarraipen Batzordea formalki eratzea
Osasuna	▪ Kide anitzeko organo batzuen arau-esparrua gaurkotzea ▪ Aholku-organoen eginkizunen koherentzia berrikustea, bai eta herritarren parte-hartze ezberdina ere, haiei koherentzia bat emanez ▪ Gogoeta egitea osasun politikaren eta gaixotasunen alderdi zehatzei buruzko batzorde eta kontseiluak birmoldatu eta lehendik dagoen goragoko kide anitzeko organo bateko azpibatzerde bihurtzearen komenigarritasunari eta aukerari buruz eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Administrazio Orokorren ordezkari soiltzeari buruz ▪ Herritarrek Euskadin C Hepatitis Artatzeko Estrategiaren Gizarte eta Herritarren Partaidetzarako Batzordean duten parte-hartzea hobetzea ▪ Kide anitzeko organo batzuetako kide kopurua gutxitzea ▪ Gogoeta egitea jarduerarik ez duten kide anitzeko organo batzuk iraunaraztea komenigarria eta egokia izateari buruz (ikus 9.2.3 atala)
Segurtasuna	▪ Kide anitzeko organo batzuen arau-esparrua gaurkotzea ▪ Euskadiko Bide Segurtasuneko Batzordeko azpibatzerde sektorialen balizko berrantolaketa ▪ Kide anitzeko organo batzuk beste batzuetan sartzea ▪ Gogoeta egitea jarduerarik ez duten kide anitzeko organo batzuk iraunaraztea komenigarria eta egokia izateari buruz (ikus 9.2.3 atala)
Lana eta Justizia	▪ Gogoeta egitea jarduerarik ez duten kide anitzeko organo batzuk iraunaraztea komenigarria eta egokia izateari buruz (ikus 9.2.3 atala)
Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa	▪ Kide anitzeko organo batzuen arau-esparrua gaurkotzea ▪ Lanerako proposamen-ildoak indartzea, bai eta kide anitzeko organoen arauetan jasotako parte-hartzerako eginkizunei lotutakoak ere ▪ Herritarrek eta sektoreak kide anitzeko organoetan duten parte-hartzea indartzea ▪ Gogoeta egitea jarduerarik ez duten kide anitzeko organo batzuk iraunaraztea komenigarria eta egokia izateari buruz (ikus 9.2.3 atala)
Unibasq - Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentzia	▪ Barne-funtzionamendurako erregelamendu bat onestea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren ikuspegiarekin, oraindik ere halakorik ez dutenetan
Uraren Euskal Agentzia	▪ Kide anitzeko organoen egiturei eta osaerari buruz gogoeta egitea, haien partaidetza-eginkizunei dagokienez (herritarren parte-hartzea, bai elkarte bitartekoa bai banakakoa ere)





9. Jarduketa Egitasmoa

PEGIP 2020ren 6.4 proiektuaren xedea eta asmo orokorra da kide anitzeko organoetarako **Jarduketa Egitasmo** bat proposatzea, zeharkako eta berariazko neurrien bitartez, bereziki maila ezberdinetako euskal administrazio publikoak inplikatzeko dituzten politika publikoetan hobetu ahal izateko partaidetza-funtzioak, aholkularitzakoak eta koordinaziokoak, abiapuntutzat hartuta inplikaturiko pertsona erakunde guztien arteko gogoeta bateratua (3.2 eta 4. atalak) eta partaidetzazkoa eta gaur egungo egoeraren indarguneen eta ahulezien gaineko ebaluazioa eta diagnostikoa (8.3.10 atala).

Ondoren datozen neurri eta jarduketaren helburua da lagungarri gertatzea kide anitzeko organoak sortu zirenen helbururako tresna erabilgarriak izan daitezen, eraginkortasun eta efizientzia irizpideekin.

Hainbat motatako neurriak dira: araugintzakoak eta juridikoak, erregelamendu-erakoak, antolamendukoak, kudeaketakoak eta funtzionamendukoak, organoak arrazionalizatu eta hobetzeko eta abar, eta hiru multzo handitan biltzen dira:

- a) **Zeharkako neurriak:** kide anitzeko organo guztiak edo haien zati handi bat inplikatzeko dutenak dira, eta gaur egungo agertokia hobetzera bideratuta daude.



Norainokoa duten neurri berariazkoak:

organo horietako askori aplikatuta ere, organo gehienak inplikatzeko ez dituztenak eta, horrenbestez, zeharkako neurritzat ezin har daitezkeenak.

Neurri batzuk proposatzen dira "egungo organoen egitura sinplifikatzera" bideratuak (9.2.2 ataletik 9.2.5 atalera):

- Kide anitzeko organo ez-aktiboen azkentzea
- Kide anitzeko organoen iraunkortasunari buruzko gogoeta
- Kide anitzeko organoen egitura soiltzea
- Kide anitzeko organo aktiboak Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluan sartzea



- b) **“Kasuz kasuko” berariazko neurriak** : Kide anitzeko organo zehatzetarako berariazko beste jarduketa batzuk.

9.4 eta 9.5 ataletan, zenbatetsitako aurrekontua eta Jarduketa Egitasmoaren hedatzearen eta betearaztearen plangintza jasotzen dira.

9.1. Zeharkako jarduketak

9.1.1. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Administrazio Orokorreko eta haren Administrazio Instituzionaleko kide anitzeko organoen kudeaketa sistema

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren Administrazio Instituzionaleko kide anitzeko organoak kudeatzeko sistema onartzen da, kide anitzeko organoak eta organo horietako kideak zeharka, modu eraginkor, efiziente, seguru eta homogeneoan kudeatzeko barne-tresna gisa, bai eta organo horien jardueraren jarraipena egiteko ere.

A. Sistemaren xedea eta helburua

EAEko Administrazio Orokorreko eta haren Administrazio Instituzionaleko kide anitzeko organoen kudeaketa-sistemak honako hauek ahalbidetu behar ditu:

- Kide anitzeko organoen informazio historikoa mantentzea
- Alten eta bajen kudeaketa eta organoen eguneratzea
- Kideen altak eta bajak kudeatzea eta eguneratzea (historikoak mantendu gabe)
- Periodikoki ebaluatzea organoen funtzionamendua eta jarduera, helburuen betetze-maila eta ea baliorik eransten dioten politika publikoen diseinu, gauzatze eta ebaluazio parte-hartzaileari

B. Kokapena eta atxikipena

Kide anitzeko organoen kudeaketa-sistema administrazio publikoaren arloan eskumenak dituen sailari atxikitzen zaio; sail hori arduratzen da sistema konfiguratzeaz eta mantentzeaz, eta haren kudeaketa koordinatzeaz sail, erakunde autonomo eta zuzenbide pribatuko erakunde publiko guztiekin.

Web-ingurunean duen aplikazio informatikoa hemen dago gaur egun: <https://jakina.elkarlan.euskadi.eus/webguneak>.



C. Irismena

Honako hau izango da, gutxienez ere, sistemaren irismena:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Administrazio Orokorreko eta haren Administrazio Instituzionaleko kide anitzeko organo guztien inbentarioa eta ezaugarriak, aukera emanez haren sorrerari eta azkentzeari buruzko bilakaera historikoaren jarraipena egiteko, bai eta haren funtzionamenduaren eta jardueraren jarraipena ere.
- Inbentarioan, existentzia formalizatua duten kide anitzeko organoak sartuko dira, irauteko bokazioarekin sortuak (ez gai jakin bat edo koiunturazko arazo bat konpondu edo eztabaidatzekoak), koordinazio eta/edo eztabaidarako guneak alegia, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko administrazio publikoaren eta haren administrazio instituzionalaren legitimazioa dutenak.
- Horrenbestez, barruan sartuko dira hasi sailen arteko koordinaziorako barne-organoeetatik (adituek eta/edo Administrazioari lotutako langileek bakarrik osatuak) herritarren partaidetza banaka edo elkarteka duten kide anitzeko organoetaraino, erakunde autonomoen eta zuzenbide publikoko ente publikoen gobernu-organoei ere lekua utzita (administrazio-kontseiluak, zuzendaritza-patronatuak...).

Sisteman berariaz eta esplizituki sartuko dira, elkarren arteko loturak ezarriz, beste batzuen menpekoak diren kide anitzeko organoak: azpibatzerdeak, azpikomiteak, batzerde sektorialak eta antzekoak.

Ez dira sartuko, ordea, programa-kontratuen, hitzarmenen eta antzekoen jarraipen-batzerdeak, ez eta klusterrak ere.

Kide anitzeko organo baten integrazioari buruzko zalantzarik izanez gero, Administrazio Publikoaren arloko sail eskuduneko kide anitzeko organoen kudeaketa sistemaren organo arduradunak xedatutakoari begiratuko zaio.

- Kide anitzeko organoen ezaugarrietan gutxienez ere honako alderdi hauek jasoko dira:
 - Egoera, sorreraren data eta azkentzearen data, kasua bada.
 - Arau-esparrua: sorrerari buruzko araua, erregelamenduzko garapena, barne-funtzionamenduko erregelamendua, estatutuak...
 - Organoaren eginkizunak eta sailkapena: jarduketa-arloa, mota, izaera, eginkizunak, izaera, epea eta txostenen irismena, kasua bada.



- Antolamenduzko atxikipena eta integrazio administratiboa.
 - Kideak eta egiturak: antolakuntzak, ordezkaritza mota eta kide kopurua, azpibatzerdeak egotea, lantaldeak eta antzekoak.
- Funtzionamenduaren eta jardueraren jarraipenak, gutxienez ere, honako alderdi hauek jasoko ditu:
- Zehazten den aldian egiten diren bilerak.
 - Bileretara joateagatik edo beste arrazoi eta gastu batzuegatiko konpentsazioei buruz Gobernu Kontseiluak erabakia hartu izana, eta erabaki hori zehaztutako aldian xede horretarako erabili izana.
 - Zehazten den aldian eginiko txostenak eta haien tipologia.
 - Zehazten den aldiko aurrekontuak eta kide anitzeko organoaren gastu propioa.
 - Zehazten den aldian edozein kontzepturengatik emaniko kalte-ordain eta konpentsazioak.
 - Langileak: kide anitzeko organoaren lanari esleitutako pertsonak.
 - Erabakiak: erabakiak hartzeko modua eta maiztasuna.
 - Jarduera: Zehazten den aldian egindako lanen eta jardueren laburpena.
 - Eragina: Politika sektorialari buruzko definizioaren eta haren jarraipenaren eta ebaluazioaren gaineko eraginaren laburpena.
 - Kudeaketaren eta jardueraren urteko oroitidazkiak.
- Sistemak, gutxienez ere, kide anitzeko organoetako kideei buruzko honako datu eta informazio hauek jasoko ditu, baldin eta datu pertsonalak babesteari buruzko araudiaren arabera bada:
- Beharrezkoak diren identifikazio-datuak.
 - Kideekiko komunikazio eta elkarrikereta zuzenetarako behar diren harreman-datuak.
 - Sexua (emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko azterketak zuzen aplikatzeko).
 - Zer antolakunde ordezkatzeko duen, bai eta antolakunde mota ere.
 - Kide anitzeko organoan duen kargua.
 - Kideztza mota (titularra, ordezkaria...). Ezingo dira gonbidatu edo aditu gisa sartu datu pertsonalak babesteko arrazoiengatik.
 - Izendapenari buruzko egintza administratiboa.
 - Kide anitzeko organoko kide izendatzeko data.



D. Erantzukizunak

Administrazio publikoaren arloan eskumenak dituen sailaren erantzukizuna da:

- Sistemaren erabiltzaileen baimenak, profilak eta sarbideak kudeatzea.
- Sistema eta tresna informatikoaren konfigurazioa eta mantentze ebolutiboa, unean uneko premietara eta eskakizunetara egokituta.
- Kide anitzeko organoen funtzionamenduaren eta jardueraren, helburuen betetze-mailaren eta politika publikoak diseinatu, gauzatu eta ebaluatzeko balio-ekarpenaren aldizkako ebaluazioa eta diagnostikoa sustatzea eta koordinatzea, modu parte-hartzailean, sailekin, erakunde autonomoekin eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoekin koordinatuta, eta, bereziki, kide anitzeko organoetako idazkaritza-eginkizunak betetzen dituzten pertsonekin koordinatuta.
- Gobernantza Publikoaren eta Gobernu Onaren esparruan kide anitzeko organoak etengabe hobetzeko egokitzat jotzen dituen neurriak eta jarduerak proposatzea.
- Datu pertsonalen tratamenduaren arduradun gisa, datu pertsonalen babesaren arloko betebeharrak.

Sailek, erakunde autonomoek eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoek sistemaren xedea, helburu orokorra eta helburuak behar bezala betetzen direla zainduko dute. Sisteman kide anitzeko organoen altaren eta karakterizazioaren arduradunak izango dira sortzen diren unetik beretik, eta kide anitzeko organoetako kideei eta haien jardueraren jarraipenari buruzko informazioa eta datuak tratatzeko eta eguneratuta mantentzeko arduradunak ere izango dira, baita urteko kudeaketa-memoriak ere, hala badagokio. Horretarako, formalki izendatuko dituzte datuen tratamenduaz arduratuko diren pertsonak, eta indarrean dagoen ordenamendu juridikoak datu pertsonalen babesaren arloan ezartzen dituen betebeharrak bete beharko dituzte.

E. Datu pertsonalen babesa

Kide anitzeko organoen kudeaketa-sisteman datu pertsonalak tratatzeko legitimazioa ematen duen arrazoia Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1.e artikuluko e) idatz-zatian aurreikusitakoa da. Erregelamendu hori datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoak babesteari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa da, eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen du. "Tratamendua beharrezkoa da interes



publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoen izenean egindako misio bat betetzeko".

Datu pertsonalen tratamendu horretarako oinarri juridikoa gobernu-programa da, bai eta lehendakariak "EAEko maila anitzeko erakunde-osaera duten kontseiluak eta batzordeak – Kide anitzeko organoak – Identifikatzeko" dituen ahalmenak ere.

Sistema osoa datu pertsonalen babesaren arloan indarrean dagoen arau-esparruan xedatutakoari lotuko zaio, eta, bereziki, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan xedatutakoari, eta 4. paragrafoan adierazitako erantzukizunak behar bezala betetzeko eskatzen zaien pertsonak bakarrik sartuko dira erregelamendu horretan.

Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko Datuak Babesteko ordezkararen jarraibide eta argibide guztiak beteko dira, eta hark zehaztuko du Tratamendu Jardueren Erregistro Elektronikoa.

Plan hau onartzen duen Gobernu Kontseiluaren Erabakia da datuen tratamenduaz arduratzen diren pertsonak plan honen arduradunarekin lotzen dituen egintza juridikoa, eta xede, iraupen, izaera eta helburua, datu pertsonalen mota eta interesdunen kategoriak dagokion atalean ezartzen dira.

a) Oinarri juridikoa

- Interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoen izenean egindako misio bat betetzeko beharrezko tratamendua.
- Gobernu-programa eta Lehendakariaren ahalmenak, "EAEko maila anitzeko erakunde-osaera duten kontseiluak eta batzordeak – Kide anitzeko organoak – Identifika daitezen".
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.

2/2016 Legea, 2016ko apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.

b) Tratamenduaren arduraduna

Administrazio publikoaren arloko zuzendaritza eskuduna.

c) Tratamenduaren helburua

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko kide anitzeko organoak kudeatzeko sistema mantentzea.



d) Datuen tratamenduaren xedea

EAEko Administrazio Orokorreko eta haren Administrazio Instituzionaleko kide anitzeko organoetako kideen kudeaketa eguneratua.

e) Datuen tratamenduaren iraupena

Eskuragarri dagoen informazio pertsonala pertsona fisikoak kide diren kide anitzeko organoetako kide diren aldira mugatuko da.

f) Kontserbatzeko epea

Eskatutako helburua betetzeko eta erantzukizunak zehazteko behar den denbora. Artxibo eta dokumentazioei buruzko araudian xedatutakoa aplikatuko da.

g) Datuen tratamenduaren izaera eta helburua

Kudeaketa-sistema barne-kudeaketarako tresna bat da, kide anitzeko organoen informazioa eguneratuta edukitzeko, haien gorabeherak kudeatzeko, bai eta sortu diren helburuen eta politika publikoak diseinatu, gauzatu eta ebaluatzeko egin dituzten ekarpenen betetze-maila ebaluatzeko ere. Hori guztia haren arrazionalizazioa eta hobekuntza proposatzeko helburuarekin, bai alderdi arauemaileei dagokienez, bai antolamendu-alderdi hutsei dagokienez.

Sistemaren helburua eta helburua, besteak beste, jarraipena eta kontrola egitea da, bai eta aldirian behin organoen funtzionamendua eta jarduera ebaluatzea ere, eta hori ezinbestean lotuta dago Planaren beste jarduketa batzuekin (ikus 9.1.8 atalak). Kide anitzeko organoen urteko kudeaketa- eta jarduera-memoriak eta 9.1.9. Kide anitzeko organoen aldizkako ebaluazioak).

Izaera kudeaketakoa da, eta, besteak beste, kideen altak eta bajak kudeatzea eta eguneratzea du helburu (historikoei eutsi gabe).

h) Datuen kategoriak

- Identifikazio-datuak
- Datu akademikoak eta profesionalak
- Enpleguari eta administrazio-karrerari buruzko datuak

i) Datu-motak

Ahalik eta arreta handienaz jokatu da datu pertsonal partikularrak ez komunikatzeko. Batez ere, telefono eta mezu elektroniko partikularrak jasotzea saihestu behar da, eta profesionalak biltzera mugatu.



Ezingo da sartu datu pertsonalak babesteagatik gonbidatutako pertsonarik edo aditu gisa, eta ez da sartuko kide anitzeko organoetako kideen inolako datu ez-profesionalik.

Aldagarria	Mota	Balioak
Deiturak eta izena	Testu librea	
Sexua	Hautaketa	Emakumezkoa Gizonezkoa
Kide anitzeko organoa	Hautaketa	
Kide mota	Hautaketa	Titularra Ordezkoa
Kide anitzeko organoan duen kargua	Hautaketa	Presidentea Batzordeburuordea Idazkaria Idazkari teknikoa Kidea Beste bat
Erakundea	Hautaketa	Justizi Administrazioa Hezkuntza-administrazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritza) Estatuko Administrazio Orokorra Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Administrazio Instituzionala (erakunde autonomoak eta zuzenbide pribatuko ente publikoak) Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Bilboko Udala Donostiako Udala Gasteizko Udala Arartekoa Gipuzkoako Foru Aldundia EAJ-PNV EH-BILDU EHNE ELA EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA-ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS Merkataritza Ganbera CCOO CONFEBASK Arabako Foru Aldundia Bizkaiko Foru Aldundia LAB Kide anitzeko beste organo bat Beste udal batzuk Eusko Legebiltzarra PP PSN-PSOE UGT Deustuko Unibertsitatea Mondragon Unibertsitatea Euskal Herriko Unibertsitatea
Ordezkaritza mota	Hautaketa	Administrazio Publikoa Elkarteak, elkarte-entitateak eta federazio pribatuak Elkargo profesionala Zuzenbide publikoko korporazioa Enpresa pribatua edo enpresen elkarte Izaera pribatuko fundazioa Sektore publikoa (partzuergoa, fundazioa, sozietate publikoa...) eta partaidetzako beste ente batzuk Sindikatuak GKEak eta hirugarren sektorea Kide anitzeko beste organo bat Pertsona aditua edo nabarmena Unibertsitatea, erakunde akademikoa, ikasketa-zentroa, museoa



Saila/Erakundea/entea	Bilaketa	Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia Lehiaren Euskal Agintaritza Euskadiko Liburutegia Kultura eta Hizkuntza Politika Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak Hezkuntza EITB-Euskal Irrati Telebista. Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea Enplegua eta Gizarte Politikak Eustat - Euskal Estatistika Erakundea EEE - Energiaren Euskal Erakundea Gobernantza Publikoa eta Autogobernua Ekonomia eta Ogasuna Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea (HABE) Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua Finantzen Euskal Institutua Etxepare Euskal Institutua IVAP - Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea Kontsumobide - Kontsumoko Euskal Institutua Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzua	Lehendakaritza Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Entitate juridiko propioa duen erakundea Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea Euskal Trenbide Sarea Osasuna Segurtasuna SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentzia, Lan eta Justizia Saila Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa Unibasko-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentzia
Postua	Hautaketa	Alkate-udalburua Aholkularia Aholkulari juridikoa edo legelaria Katedraduna Zinegotzia Sailburua Koordinatzailea Dekanoa Zuzendaria Zuzendari nagusia Zuzendari kudeatzailea Foru diputatua Diputatu nagusia Fiskala edo fiskal nagusia Zerbitzuko burua edo arduraduna	Ataleko burua edo arduraduna Lehendakaria Magistratua Legebiltzarkidea Presidentea Irakaslea edo katedraduna Errektorea edo errektoreordea Idazkari nagusia Zuzendariordea Teknikaria Alkateordea Diputatu nagusiordea edo foru-diputatuordea Sailburuordea Errektoreordea
Administrazio-maila	Hautaketa	Kargua Kargurik ez-A taldea Kargurik ez-B taldea Kargurik ez-C taldea	
Harremanetarako datuak: Telefono finkoaren zenbakia, sakelako telefonoaren zenbakia, posta elektronikoko helbidea eta posta arrunteko helbidea.	Testu librea		
Kide anitzeko organoko kidea izendatzen duen dokumentua			



j) Datuak tratatzeko interesa duten pertsonen kategoriak

Kide anitzeko organoetako kideak, titularrak eta ordezkioak, edozein erakunde motatakoak (administrazio publikoak eta elkarteetako nahiz banakako herritarrak, publikoak zein pribatuak).

k) Hartzaileen kategoriak (Datuen komunikazioa)

Legezko interesdunak.

Kide anitzeko organoetako idazkaritzek pertsona fisikoei jakinaraziko diete kide anitzeko organoko kide direla, kide anitzeko organoetako idazkaritzek inguruabar bereziak alegatu ahal izan ditzaten.

l) Nazioarteko transferentziak

Ez daude aurreikusita.

m) Segurtasun-neurriak

Ezarritako segurtasun-neurriak bat datoz urtarilaren 8ko 3/2010 Errege Dekretuaren II. eranskinean (Segurtasun Neurriak) aurreikusitakoekin (3/2010 Errege Dekretua, urtarilaren 8koa, Administrazio Elektronikoen eremuan Segurtasun Eskema Nazionala arautzen duena).

Kide anitzeko organoen kudeaketa sistema





9.1.2. Kide anitzeko organoen kudeaketa-sistemaren aplikazioan egindako hobekuntzak

Jarduketa Egitasmo hau egitearen eta *PEGIP 2020*ren 6.4 proiektua betearaztearen ondorioz, hobekuntza batzuk aurkitu dira, zeinek berariazko neurri baten gisara betearaztea merezi duen bloke baten moduan jaso baititugu hemen.

A . Orokorra

- Sistemari buruzko bi hizkuntza-bertsio sortzea.
- Laguntzako *tooltip*ak jasotzea erabiltzaileentzat, informazio-eremuak hobeki bete ditzaten.

B . Kide anitzeko organoen informazio-fitxa

- Arau-esparruaren atalean hiperesteken eremuak jasotzea, sorrerari eta garapenari buruzko arauetara eta horien aldaketetara jo ahal izateko.
- Honako eremu hauek sartu:
 - Arauan ezarritako *bileren gutxieneko aldizkakotasuna*.
 - “*Mota*” eremuan “*sailartekoa, erakundeartekoa eta osaera mistoa*” (baldin eta interes kolektiboak ordezkatzan dituzten erakundeek ordezkariak badaude edo banakako gisa dauden beste kide batzuk, esperientzia kualifikatua edo ezagutza dutenak) jasotzea, eta datua kide anitzeko organo guztietan berrikustea.
 - *Herritar eta elkarteek parte hartzeko gune egonkorra*.
 - *Demokraziari eta Herritarren Parte Hartzeari buruzko Euskadiko Liburu Zuria* aplikatzekoa izateari buruzko.
 - Parte-hartzaile kopurua, aniztasuna (gizarte zibilaren %) eta generoa (5 emakume).
 - Informazioa (aldez aurretik: gai-zerrenda, aldez aurretik informazioa bidaltzea eta ondoren: aktak idaztea, erabakiak argitaratzea, erabakiak komunikabideetan argitaratzea).
 - Baliabideak: ekonomikoak, langileak...
 - Bilkura-kopurua legegintzaldiko.
 - Urteko memoriak.



C . Kide anitzeko organoen jardueraren fitxa

- Langileen atalean jasotzea saileko, erakundeko edo enteko langileentzako euskarri teknikoa egoteari buruzko aukera.
- Bileretara joateagatiko eta dietengatiko kalte-ordainen jarraipen berariazkoak beharrezkoak diren eremuak jasotzea.
- Jarduerarik egon ez den urteei buruzko 3.3 atala kentzea.
- Kide anitzeko organoaren aurrekontuari dagokion 5.1 atalean zehaztea sailean dauden aurrekontu-programen aurrekontu propio berezitua badagoen.
- 6.1 eremuan aurrez zehaztutako aukera gisa uztea. *“Idazkaritzako eginkizunak betetzeko esleitutako pertsona bat badu”.*

D . Kide anitzeko organoetako kideen fitxak

- Gonbidatuen eta adituen erregistroak ezabatzea eta titularrak eta ordezkioak bakarrik uztea.
- *“Izendapenaren egintza administratiboa”* eremua jasotzea, izendapenaren artxiboa eranstea aukerarekin.
- *“Kide anitzeko organoko kide izendatzeko data”* eremua jasotzea.
- *“Kide anitzeko organoa”* eremuan aukera bakarra hauta dadila jasotzea.
- *“Maila administratiboa”* eremuan honako ohar hau jasotzea: *“soilik administrazio publikoetako pertsonentzat”.*
- *“Kide anitzeko organoaren saila”* eta *“kidearen saila”* argi nabarmentzea.

9.1.3. Kide anitzeko organoen lan egiteko espazioak eta kudeaketa²⁹

Kudeaketa hobe eta eraginkorragoa izateko kide anitzeko organoen funtzionamenduaren araubide digitalak ondokoei erreparatuko die:

²⁹ Aurreikusita dago 2019an Microsoft Office 365erako eta Windows 10erako migrazioa egitea Eusko Jaurlaritzan. Horrek jarduketa hori gauzatzeko aukera bat eman dezake. Kide anitzeko organoetako idazkaritza-eginkizunak betetzen dituzten pertsonen Plan E3 motako aditu-kontu bat eduki beharko dute, honako hauek jasoko dituenak: Sharepoint, Microsoft Teams eta Yammer. Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzak, zeinak E3 Planaren kontua baitu, eremua sortuko du, eta bertara gonbidatuko du idazkaritza, eta haren jabe egingo du. Horretarako, behar da idazkaritzak antolakuntzaren barrenekoak izatea; kasu honetan, honako azpidomeinuak: www.euskadi.eus. Horretarako 2. mailako euskarri funtzionalaz balia daiteke, zeina EJI-Ek eskuratzeko moduan egongo baita Jaurlaritzan, 2019ko apiriletik 2020ko abendura.



1. Kide anitzeko organoek ingurune digital batan garatuko dute beren jarduera. Eratzeak, komunikazioak, deialdiak eta erabakiak hartzeak, ahal dela, bitarteko elektronikoen bidez egingo dira.
2. Kide anitzeko organoek bilkurak bideokonferentzien bidez edo segurtasun teknologikoa eta bertaratutako guztien parte-hartzea —berdintasunez eta bilkura horien gauzatzea, haietako eztabaidak edo hartzen diren erabakiak baliozkoak izateko moduan— bermatzen duten beste sistema teknologikoen bidez egin ahalko dituzte.
3. Kide anitzeko organoetako bilkuren aktak eta haien ebazpenak eta erabakiak idazkaritza eta lehendakaritza duten pertsonak elektronikoki sinatutako dokumentuetan jasoko dira, eta elektronikoki artxibatuko dira artxibo elektroniko administratiboan, haien benetakotasunerako eta kontserbaziorako berme egoki guztiekin.
4. Akten eta ebazpenen liburua, euskarri elektronikoan, kasuko akten edo ebazpenen metaketa kronologikoak eta era korrelatiboan zenbakituak osatuko dute. Urtero egingo da eta hartzen dituen artxiboen aurkibide bat eduki beharko du.

Jarduketa honen helburuak honako hauek dira: kide anitzeko organoen **jarduketa-prozesuak digitalizatzea**, bereziki deialdiak eta aktak, deialdietan baliabide elektronikoen erabilera orokortzea, bilkurak egitea (telepresentzia, on line erako bilkura birtualak...), erabakiak hartzea, bileretako aktak eta ziurtagiriak egitea eta bidaltzea eta, nolanahi ere, kide anitzeko organoen funtzionamendua egokitzea [Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 17. eta 18. artikuluetan](#) ezarritakoari.

Lankidetzaren bidezko lanerako eta jakintzaren kudeaketa partekaturako tresna informatikoak ezarriko dira kide anitzeko organoentzat, haien bitartez Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Administrazio Orokorreko sare korporatiboko kideek eta sare horretatik kanpoko pertsonak lanak egin ahal ditzaten.

Hartara, errazago gertatuko da bilerak egitea eta kudeaketa efizienteagoa egingo da, denbora eta joan-etorriak aurreztuz kide anitzeko organoetako kideei; halaber, askotan Administrazioak ordaindu ohi dituen garraio-gastuak eta dietak aurreztuko dira.

Ondokoak dira kide anitzeko organoetako deialdi, akta eta erabakien kudeaketa eta sinadura elektronikoen eragin nabarmenenak:



Alderdia	Kudeaketa eta sinadura presentzialak	Kudeaketa eta sinadura elektronikoak
Beharrezko denbora	Aldagarria	Egun bat
Akten Liburua egitea, kasua bada	Ordu asko/urtea	Automatizaturik
Akten Liburua sinatzea, kasua bada	Eginkizun latza	Berehala
Ingurumen-kostua eta kostu ekonomikoa	Papera (kopia anitzak) eta inprimatzea (suntsikorak eta dispositiboak)	Ez da paperik eta inprimaketarik behar

Gune horiek edukiko dituzten kide anitzeko organoak modu irekiago eta gardenago batez eta lankidetzan handiagoz lan egiteko behar diren web-elementuak, eta hori arintasunez eta eraginkortasunez ahalbidetzeko, bai *proiektuen* ikuspuntutik, bai kide anitzeko organoaren txostenen xede diren balizko *espedienteen* ikuspegitik ere.

Kide anitzeko organo guztietarako gunearen eredu bat ezarriko da (egitura, web-elementu, irudi korporatibo eta formatu orokorrekin), zeinak ahalbidetuko baitu hura kasu zehatzei berariaz egokitzea, edukiei dagokienez.

Espazio horren kudeaketa (baimen eta rolen kudeaketa barne) kide anitzeko organo bakoitzaren idazkaritzari egokituko zaio, eta hartara soilik sartuko dira une bakoitzean horietako bakoitzaren kide diren pertsonak, organo eta erakunde eskudunek formalki izendatuek.

Neurri hori betearaztea lotuta egongo da haren hurrengoarekin (9.1.4 atala), kide anitzeko organoaren txostenaren menpean dauden *espedienteen* izapidetze elektronikoa lanerako bere gunearekin lotzeari dagokionez, halako moduz non **kide anitzeko organoek prozedura elektronikoetan bete beharreko txosten-izapidea integratuko den**, berariaz xedapen orokorrak egin eta onesteko prozeduran.

Horretarako, garapen informatikoak betearaziko dira, eta izapidetze elektronikorako plataforma erkidea halako moduz konfiguratuko da non aplikazioek aukera emango baitiote kide anitzeko organo bateko kideei modu operatiboan erraztasun handiagoz eta eraginkortasun eta efizientzia handiagoekin lan egiteko, eta modu presentzialean egiten diren lan berak egin ahal ditzaten, Internetarako sarbideaz beste baldintzarik ez dutela.

Oro har, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Administrazio Orokoro osorako eta haren Administrazio Instituzionalerako erabakitako konponbide informatikoak honako alderdi hauek segurtatu beharko ditu:



- Titularren edo ordezkoen identitatea
- Haien adierazpideen edukia
- Haiek zein unetan gertatzen diren
- Horien arteko elkarreragitea eta interkomunikazioa
- Bilkuran zehar baliabideak eskura edukitzea

Horrela:

- Kide anitzeko organo guztiak eratzeko eta organo horiek bilerak deitu eta egiteko eta erabakiak hartu eta aktak bidaltzeko, aurrez aurre egonda nahiz urrutitik jardun ahalko da.
- Deialdiak kide anitzeko organoko kideei bidaliko zaizkie baliabide elektroniko bidez, eta mezu horietan gai-zerrenda ere bidaliko da, eztabaidatzeko beharrezkoa den dokumentazioarekin batera; eta bilkura zein baldintzatan egingo den jakinaraziko da, baita konexio-sistema ere, eta, halakorik balitz, bilkuran izateko eta parte hartzeko beharrezkoak diren baliabide teknikoak zein tokitan dauden ere jakinaraziko da.
- Kide anitzeko organoek urrutitik egindako bilkuretan, kideak toki desberdinetan egon ahalko dira, betiere baliabide elektroniko bidez (halakotzat jotzen dira bide telefonikoak eta ikus-entzunezkoak ere) bermatzen bada kideen edo haien ordezkoen identitatea, kideen adierazpenen edukia, adierazpen horiek egiten diren unea nahiz kideen arteko elkarreragitea eta interkomunikazioa denbora errealean eta bilkurak irauten duen bitartean bitartekoak eskuragarri egongo direla.
- Interes legítimo baten titulartasuna egiaztatzen dutenek kide anitzeko organoaren idazkariarengana jo dezakete, erabakien ziurtagiria egin diezaien. Ziurtagiria baliabide elektroniko bidez egingo da, salbu eta interesdunak espresuki kontrakoa adierazten badu eta administrazioekin bide horren bidez erlazionatzeko betebeharrak ez badu.
- Kide anitzeko organoak egindako bilkura guztiak grabatu ahalko dira. Grabaziotik lortzen den fitxategia, grabazioaren autentikotasunari eta osotasunari buruz idazkariak egindako ziurtagiria eta bilkuran euskarri elektronikoan erabiltzen diren dokumentu guztiak bilkura-aktarekin batera jarri ahalko dira, eztabaiden puntu nagusiak aktan jasotzeko premiarik izan gabe.



- Bilkura bakoitzeko akta bilkuran bertan onartu ahalko da edo hurrengo bilkuran. Idazkariak buruaren oniritziarekin egingo du akta, eta bide elektronikoen bidez bidaliko die kide anitzeko organoko kideei. Kide horiek bide horien bidez adierazi ahalko dute testuarekiko adostasuna edo eragozpenak, testuaren onespena bideratzeko; baiezkoa eman ez gero, bileran bertan onartutzat joko da.
- Izandako bilkurak grabatzea hautatu bada edo euskarri elektronikoko dokumentuak erabiltzea hautatu bada, kontserbatu egin beharko dira fitxategi horien osotasuna eta autentikotasuna bermatzeko eran, baita kide anitzeko organoko kideek horietarako irispidea izateko eran ere.

Jarduketa honek eskatuko du aldaketa egoki kudea dadila, bai Administrazioaren beraren pertsonentzat, bai kanpoko kide anitzeko organoetako kideentzat, horren barne direla IVAPen prestakuntza-jarduerak, kide anitzeko organoetako idazkaritza eginkizunak betetzen dituzten pertsonen berariaz zuzendutako tresnen erabilerrari buruzkoak.

2019ko ekitaldi honetan, aurreikusita dago Eusko Jaurlaritza osoa Windows 10era eta Microsoft Office 365era migratzea, eta hori aukera bat da jarduketa hau heda dadin.

Zer eskaintzen du O365era?





O365 Era helburuak



Nolanahi ere, aldez aurreko analisi-azterlan bat egingo da ondokoei buruz:

- Araudia: konponbide informatikoak garatzerakoan kontuan hartu beharreko arau-xedapenak
- Segurtasuna: sistemak jarraitu beharreko segurtasunarekin lotutako alderdiak
- Artearen egoera: Antzeko aplikazioen eta balio erantsiaren analisia
- Egungo teknologien eta haien balizko alternatiben azterlana
- Azterlanaren ondorioak: Ondorioak eta erabakiak

Era berean, aztertuko da komenigarria ote den arau bat onestea, zeinaren bidez, oro har, erregulatuko baitira Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean eta, kasua bada, etorkizuneko Euskal Sektore Publikoari buruzko Legean xedatutakoa bermatzeko gutxieneko baldintzak.

9.1.4. Kide anitzeko organoetako txostenen izapidetze elektronikoa

Kide anitzeko organoetako prozesuak digitalizatzeko helburuak eskatzen du espediente elektronikoa errealitate bat izan dadila, eta, aldi berean, administrazio elektronikoak eta Gobernantza Publikoak (kontu-ematea, gardentasuna, herritarren partaidetza...) eskatzen dute kide anitzeko organoetako kideek lan egiteko modu berri batean aurrera egin dadila.

Neurri hori betearaztea lotuta egongo da haren aurrekoarekin (9.1.3 atala), kide anitzeko organoaren txostenaren menpean dauden espedienteen izapidetze



elektronikoa lanerako bere gunearekin lotzeari dagokionez; hori dela eta, garrantzitsua da prozedura askotan, baina bereziki honako hauek taxutu eta onesteko prozeduran:


- Izaera orokorreko arau-xedapenak³⁰
- Gobernu-plan estrategikoak
- Sailen planak eta bestelako jarduketa esanguratsuak

Zerbitzu elektronikoen unitatea arduratuko da izapidetze elektronikorako plataforma komunaren egituraketa gaurkoturik edukitzeaz, hartara txostenaren eskaera eta hura espediente elektronikora bidaltzea modu guztiz elektronikoa egin daitezen ahalbidetzeko.

Horretarako, bi lan eskatzen dira, aldi desberdinetan:

- a) Tramitaguneko kide anitzeko organoen taula nagusiaren eta kide anitzeko organoen kudeaketa sistemako dagokion informazio-eremuaren kudeaketa koordinatua
- b) EJI Eri urtero egiten zaion mandatuan sartzea Tramitaguneraren eta prozedura elektronikoa txostenak ematen dituzten kide anitzeko organoetako lanerako eta kudeaketarako guneen arteko elkarrenergaita eraiki dadila

³⁰ Hori dela eta, finkatu samar dauden kide anitzeko organoak direnean ere, bistan da organo horiek **operatiboak izatearekin lotutako hainbat arazo badaudela**, haien esku-hartzea zailtzen dutenak. Hartara, izaera orokorreko xedapen bat egiteko izaera puntualak berekin dakar eginkizun horretarako dinamika ez dagoela, aurreikusita dagoen txostena/balorazioa egiteari begira (litekeena da organoko kideek eginkizun hori oso noizean behin baizik egin behar ez izatea, eta batetik bestera tarte luzea dagoela). Halaber, kideekiko harremanetarako beste bide batzuk egoteak berekin dakar joera dagoela arazoei konponbidea emateko hain formalak ez diren bideak erabiliz, iritzia eman dezan organoari bidaltzen zaion testuak adostasun zabala lortu duenean (hori dela eta, oso mugatuak izaten dira kasu gehienetan organo horiek egiten dituzten ekarpenak, eta askotan testua onetsi besterik ez dute egiten, edo igorritako testuari buruzko ekarpenik ez dagoela ziurtatu). ([Egungo arau-esparruari eta kide anitzeko organoari buruzko hausnarketa-agiria](#), Gobernu Kontseiluaren 2010eko otsailaren 9ko Erabakiaren karia eraturako lantaldeak egina).



9.1.5. Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko neurriak

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren ikuspegiaz gainera —egitasmo honetako bestelako neurrietan jasota dauden kide anitzeko organoen arau-esparruetan eta barne funtzionamenduko arauetan jasota dago ikuspegi hori—, Administrazioak hirugarrenei eskatzen dienean kide anitzeko organo batean ordezkari izango diren kideak izendatzeko, pertsonak betetzen dituzten karguak direla-eta dauden aukerez harago, Administrazio honetan dauden legezko aurreikuspenak eta helburuak gogoraraziko zaizkie: *BG.14 Emakumeek eta gizonek zuzendaritza-organo edota pluripertsonaletan ordezkari izatea bermatzea.*

9.1.6. Partaidetzarako kide anitzeko organoak eta Demokraziari eta herritarren parte-hartzeari buruzko Euskadiko Liburu Zuriaren zabalkundea

Eduki demokratikoa eta partaidetza ageriko bihurtzen da zentzua eta indarra ematen dien kasuistikekin lotutako kolektiboei ahotsa ematen zaienean, halako moduz non haien ekarpenak kontuan hartuko baitira eztabaidatzen ari diren gaietan.



Partaidetza berezko zerbait bihurtzen da kide anitzeko organo askorentzat, halako moduz non nahitaez kontuan hartuko baitira biztanleriako ukitutako sektoreak, bai eztabaidan, bai ondorioetan eta ondorengo erabakiak hartzerakoan. Horrek funtsezko ekarpena egiten du gizarte egiazki demokratiko baten eraikuntzan, halakoa izan behar baitu demokrazia parte-hartzaileak.

Abiapuntuko helburua da erantzuna ematea Demokraziari eta Herritarren Parte Hartzeari buruzko Euskadiko Liburu Zuriaren zabalkunde-konpromiso honi: *“Euskadin dauden prozesu parte-hartzaileen parte eta kanal formalen inguruan azterketa kritikoa egitea. Nabarmentzekoa da zer nolako garrantzia duen administrazio-egituretan integratuta dauden kontseilu eta organo parte-hartzaileak / aholku-emaileak berrikusteak, Liburu Zuria hedatzeko bidean ongi txerta dadin: zer balio ekar dezaketen horretan edota, are, parte hartzea eragotz dezaketen trabak izan daitezkeen ala ez”*. PEGIP 2020ren 6.4 proiektuaren bidez partzialki betetakotzat (ikus 8.3.9 atala) jo daiteke, besteak beste honako arrazoi hauengatik:

- Ebaluaziorako zailtasunak, antolakuntzetan dagoen esperientzia eskasa dela-eta
- Liburu Zuriak alderdi batzuk ez zehaztea
- Kasu askotan, kide anitzeko organoaren izaeraren eta haren partaidetza-osagaiaren zehaztasuna nahasgarria izatea

Euskal Sektore Publikoaren lege-proposamena inspirazio-iturritzat hartuta, Eusko Legebiltzarrak euskal autonomia-esparruko kide anitzeko organoei erregulazioa emateko duen borondatearen erreferentea baita, interes handikoa da herritarrek eta elkarteek parte hartzeko eremu egonkorak arautzea, politika publiko bati edo elkarren artean zerikusia duten politika publiko batzuei buruz edo ezaugarri sozial edo pertsonal komunak dituen biztanleria-sektore bati buruz eztabaidatzeko edo proposamenak egiteko.

Espazio horiek modu orekatuan artikulatu beharko lituzkete herritarren presentzia, haien dimentsio egokia, kalitatezko deliberazioa eta eztabaidetako gizarte-aniztasuna, eta balio publikoa sortzeko gardentasunean eta gobernu onean oinarritutako elkarrekiko konfiantzan oinarrituko lirateke.

Hala ere, gerta liteke lehendik bazeuden kide anitzeko organoak edo sortu berriak, funtsean partaidetzazkoak, herritarrek parte hartzeko espazio egonkor gisa hartzea.



Horregatik, gainerako jarduketetan jasotako herritarren parte-hartzearekin lotutako beste neurri batzuez gain, Euskadiko Demokraziari eta Partaidetzari buruzko Liburu Zuriaren hedapena gauzatzeko, komenigarria litzateke honako hauek egitea:

- a. Kudeaketa Sisteman kide anitzeko organo guztien izaeraren kategorizazioa berrikustea, eta funtsean partaidetzazkoak diren edo partaidetza-osagai handia duten organoak zehaztea. Ondorio horietarako, herritarrei lotutako parte-hartzearen kontzeptua ulertzen da (herritarren parte-hartzea), elkartekoa, banakakoa edo bietakoa izan.
- b. Kide anitzeko organoen kudeaketa-sisteman, herritarren eta elkarteen partaidetzarako gune egonkor gisa uler daitezkeen kide anitzeko organoak zehaztea.
- c. Kide anitzeko organoen kudeaketa-sisteman zehaztea horien partaidetza-ereduen ezaugarriak, Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundeak (ELGA) partaidetzari buruzko txostenean (2001) egindako tipologiaren arabera, kontuan hartuta partaidetza-tresna batzuk edo besteak gehiengoa direla, eta partaidetza-maila edo -mailak zehaztea:

→ Informazio-eredua

Interes publikoko edukietarako sarbidea da, eta herritarrei informazioa emateko tresna gehienak daude. Beraz, zentzu bakarreko harremanetan oinarritutako parte-hartze eredua da: administratibotik herritarrengana. Garrantzitsua da, gainerako mailetan parte hartzen laguntzen duelako.

→ Kontsulta-eredua


Herritarren iritzia entzun eta jasotzen da, eta agintariet politikara edo zerbitzu publikoen arloan erabakiak hartzeko orduan kontuan har dezakete edo ez. Kontsulta aztertu beharreko gaiari buruz aldeztu dagoen informazioaren kantitatearen eta kalitatearen arabera da. Bi zentzuko harremanetan oinarritzen da. Harreman horietan, herritarrek atzera elika dezakete administratibotaren ekintza, kontsulta-prozesu baten bidez. Prozesu horretan, administratibotari gai politiko zehatzei buruzko iritzia emateko gonbita egiten zaio.



→ Partaidetza aktiboaren eredua

Gobernuaren eta herritarren arteko elkarrekikotasunean eta elkartzean oinarritutako harremanak ezartzen dira. Herritarren parte-hartze aktiboa aitortzen da agenda politikoa ezartzeko eta alternatibak proposatzeko orduan, nahiz eta erabakien erantzukizuna administrazioarena izaten jarraitu.

- Deliberazioa: gizabanakoek edo elkarteetako ordezkariak parte hartzea, eragiten dieten gaietan aditu gisa erabakiak hartzeko.
- Baterako erabakia: herritarrek agintariekin lankidetzan hartzen dituzte erabakiak, eta, beraz, bertan esku hartzen duten eragileek partekatzen dute erabakitze ahalmena.



- Kide anitzeko organoen balorazio-inkesta bat egitea (9.1.10 atala), baldin eta haien emaitzak hurrengo aldizkako ebaluazioan integragarriak badira (9.1.8 atala).
- Kide anitzeko organoen aldizkako ebaluazioetan (9.1.9 atala) kide anitzeko organoaren izaeraren dimentsioak eta erabakiak hartzeko metodoa aztertzea, batez ere organo horien osagai parte-hartzaileari dagokionez (8.3.6 atala).
- Berdintasunaren arloan lan egiten duten gizarte zibileko erakundeei eta/edo berdintasunean adituak diren pertsonen herritarrek parte hartzeko kide anitzeko organoetan parte hartzeko aukera ematea komeni den aztertzea.
- "Herritarren parte-hartzea gure Administrazioan araututako kide anitzeko organoen bidez" gaiari buruzko deliberazio-saio bat antolatzea, kide anitzeko organoetan sustatzen den herritarren parte-hartzea hobetzeko.



9.1.7. Publizitate aktiboa eta gardentasuna

Jarduketa Egitasmo hau eta Eusko Jaurlaritzako sail bakoitzeko eta erakunde autonomo zen zuzenbide pribatuko ente publiko bakoitzeko kide anitzeko organoei buruzko ebaluazioko eta diagnostikoko berariazko oroitidazkiak direla-eta publizitate aktiboa egingo da [Gardena](#) gardentasun-atarian, metadatuak anonimo bihurtu ondoren.



Gainera, kide anitzeko organoei buruzko hurrengo informazioa dela-eta publizitate aktibo gaurkotua egingo da:

- Kide anitzeko organoen inbentarioari buruzko informazio egonkorra (haiei buruzko informazio-fitxak).
- Kide anitzeko organoen eta karguen bilatzaile bat, pertsonen, erakundeen eta ekipamenduen datuen gordailua www.euskadi.eus eta Open Data Euskadi³¹.

Bilatzaileak aukera emango du emaitzak lortzeko eremuen arabera iragazkiak aplikatuz; esate baterako, kide anitzeko organoaren egoera, atxikipena, jarduketa-arloa, organo mota eta inbentarioko nahi den beste edozein eremu.

³¹ Ikus, esate baterako: [Murtziako Erregioko kide anitzeko eta parte-hartze sozialeko organoen bilatzailea](#).



Lortutako emaitzak kide anitzeko organo zehatzekiko loturak jasoko ditu, eta haietan, kontsulta egiten duen pertsonak, honako hauek aurkituko ditu:

- Kide anitzeko organoari buruzko informazioa: informazio-fitxa.
 - Jarduerari buruzko informazioa: aktak, jarduerari buruzko urteko oroitidazkiak, aldizkako ebaluazioen emaitzak (kide anitzeko organoaren jarduera-fitxa eta atxikita dagoen organoaren berariazko oroitidazkia).
- c) Kudeaketari eta jarduerari buruzko urteko oroitidazkiak (9.1.8 atala).
- d) Aldizkako ebaluazioen emaitzak (9.1.9 atala).

9.1.8. Kide anitzeko organoen kudeaketari eta jarduerari buruzko urteko oroitidazkiak

Urtero, sail, erakunde autonomo eta zuzenbide pribatuko erakunde publiko bakoitzak, urte bakoitzeko urtarilaren 31 baino lehen, kide anitzeko organoen kudeaketa-sisteman sartuko ditu atxikita dituen kide anitzeko organo bakoitzaren urteko kudeaketa- eta jarduera-memoriak. Memoria horiek ere www.gardena.eus gardentasun-atarian argitaratuko dituzte, data bera baino lehen publizitate aktiboa egiteko.

Kide anitzeko organo baten jarduerarik ezak hura birformulatzea edo azkentzea kontuan hartzea eskatuko du.

Memoria horien gutxieneko irismena, edukia eta egitura kide anitzeko organo guztientzat honako hau izango da:

- Itxiera-urtean lortu nahi izan diren helburuak.
- Hala badagokio, kide anitzeko organoen kudeaketa-sisteman kide anitzeko organoari buruzko informazioan egindako aldaketak.



- Itxiera-urtean gauzatutako jarduerak eta jarduketak, kokatuta dauden araudi-esparruak esleitzen dituen berariazko funtzioak zehaztuta. Nolanahi ere, honako hauek zehaztuko dira:
 - Bileren kopurua (osoko bilkurarena, batzorde iraunkorrarena eta azpibatzaorde eta lantaldeena)
 - Txostenen eta/edo irizpenen kopurua eta mota
 - Azterlan, proiektu, plan eta memorien kopurua eta mota
 - Komunikazio- eta dibulgazio-jarduerak (edozein euskarritako argitalpenak, web-orriak barne)
 - Kanpo-harremanak eta lankidetzak (kide anitzeko beste organo batzuk, beste erakunde batzuk)
 - Beste jarduerak batzuk
- Administrazio-laguntza, kudeaketa eta, zehazki, kide anitzeko organoari bere arau-esparruan esleitutako eginkizun guztiak zenbatzea, atxikita dauden erakundeko eta administrazio-organoko langileen lanorduetan.
- Partaidetzazko kide anitzeko organoen kasuan (herritar indibidualen edo elkartearen parte-hartzea, edozein motatakoa), memorian haien partaidetza-jardueraren ebaluazio bat jasoko da, Euskadiko demokraziari eta herritarren parte-hartzeari buruzko Liburu Zuriaren esparruan:
 - Parte hartzeko ereduak, ELGAK parte-hartzeari buruzko txostenean (2001) landutako tipologiaren arabera, kontuan hartuta parte hartzeko eta parte-hartze maila edo mailak zehazteko tresna gehienak daudela (9.1.6 C atala)
 - Parte hartzeko erabilitako tresnak
 - Parte hartzeko dokumentazioa
 - Herritarrei parte hartzeko eta feedbacka egiteko prozesuak
- Esleitutako urteko aurrekontua eta kontzeptuen araberrako sarrera-gastuen balantzea (kalte-ordainetan zehaztuko da kontzeptu hori: bileretara joatea, espedienteak ebaztea edo txostenak eta irizpenak egitea, edo beste batzuk).
- Politika sektorialaren edo jardun-arloaren definizioan, jarraipenean eta ebaluazioan izandako eraginaren balorazioa: egindako jarduerak eta gauzatutako jarduerak zenbateraino lagundu duten efikazia eta efizientzia lortzen, jarduerak-arlo



horretako arazoak edo beharrak konpontzen, eta itxiera-urterako ezarritako helburuak lortzen.

- Kide anitzeko organoak hurrengo urterako dituen helburuak.

Itxiera-urtean jarduerarik ez badago, jarduera eragin duten arrazoiak sartu beharko dira, bai eta jarduerarekin jarraitzeko edo, hala badagokio, birformulatzeko edo azkentzeko premia eta aukera ere.

Ondorioz, administrazio publikoaren arloan eskumena duen sailak kide anitzeko organo guztien urteko txosten-balantzea egingo du, Gobernu Kontseiluak horren berri izan dezan, urte bakoitzeko martxoaren 31 baino lehen.

Behin Jarduketa Egitasmo hau onetsi ondoren, kide anitzeko organo bakoitzaren lehenengo urteari buruzko kudeaketari eta jarduerari buruzko urteko oroitidazkian, berariazko atal bat jasoko da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Administrazio Orokorreko eta haren Administrazio Instituzionaleko kide anitzeko organoen kudeaketa sisteman kide anitzeko organoari buruz eta Jarduketa Egitasmo honen xehetasunen aplikazioari buruz dagoen informazioa biltzeko; honako informazio hau, besteak beste:

- Kide anitzeko organo batzuen irauteari buruzko gogoetaren emaitza eta ondorio arrazoidunak (9.2.3 atala)
- Kide anitzeko organo batzuen soiltzeari buruzko gogoetaren emaitza eta ondorio arrazoidunak (9.2.4 atala)

9.1.9. Kide anitzeko organoen aldizkako ebaluazioak

Administrazio publikoaren arloan eskumena duen sailak, sail, erakunde autonomo eta zuzenbide pribatuko erakunde publiko guztien eta, bereziki, kide anitzeko organoetako idazkaritzen lankidetzarekin, horien ebaluazioa egingo du 6 urtean behin. Ebaluazio horretan, gutxienez, kide anitzeko organoetan banakako herritarrak edo elkarteak ordezkatzen dituzten kideen balorazioa jasoko da, 9.1.10 paragrafoan deskribatzen den inkestaren bidez.

Ebaluazioa amaitzeko, eraginkortasunari, efizientziari, funtzionamendu egokiari eta politika publikoei balioa emateari eusteko beharrezkotzat edo komenigarritzat jotzen diren era guztietako jarduera-proposamenak egingo dira, berariaz zehaztuz emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko alderdien aurrerapena eta egoera,



elkarteen eta norbanakoen ordezkagarritasuna eta parte-hartzea, eta kide anitzeko organoen arteko bikoiztasunik eza.

Administrazio publikoaren arloan eskumena duen sailak ezarriko du ebaluazioaren metodologia, bai eta kide anitzeko organo guztientzako gutxieneko adierazleen sistema ere, organoen jarduerak politika publikoan eta jardun-arloan duen eraginari buruzkoak eta Euskadiko Demokraziari eta Parte-hartzeari buruzko Liburu Zuriaren hedapenari buruzkoak barne, hala dagokionean (batez ere parte hartzekoak, parte hartzekoak eta parte hartzekoak).

Kide anitzeko organoen ebaluazioaren helburu nagusia honako hau izango da: organo horien funtzionamendua ezagutzea, organo horiek sortu zirenerako balio duten zehaztea, zehazki herritarren parte-hartzea sustatzeko balio duten zehaztea, funtzio horiek eraginkortasunez betetzen dituzten ala ez zehaztea, eta organo horien egitura, funtzioak eta funtzionamendua hobetzea, inplikaturako sektoreen iritzia kontuan hartuta. Beraz, ebaluazio parte-hartzailea izango da.

Zehazkiago, hauek izango dira ebaluazioaren helburuak:

- Organoen funtzionamendua, araudia, egitura eta osaera ezagutzea.
- Organo horien eginkizunak eta egindako lana ezagutzea.
- Herritarren ordezkariak erakunde eta elkarteen bidez duten parte-hartze maila.
- Arloetako politika publikoen definizioan, jarraipenean eta ebaluazioan duten eragina ebaluatzea.
- Inplikaturako sektore guztiek (administrazioak, parte-hartzaileak eta erakundeak) kontseiluen eta kide anitzeko gainerako organoen egungo egoerari eta etorkizunari buruz duten iritzia ezagutzea.
- Funtzionamendu, osaera, funtzio eta jardunbide egokien neurriak proposatzea, organoen funtzionamendua eta inpaktua hobetzeko, hala nola herritarrek parte hartzeko mekanismoak eta Administrazioaren erabakiak hobetzeko mekanismoak.

Aldizkako ebaluazioek lagundu egin beharko dute:

- a. Kontuak behar bezala ematea eta publizitate aktiboari buruzko betebeharrak betetzea.
- b. Beharrezkoak diren kide anitzeko organoen jarduera benetan mantentzen eta haien helburuak eta betebeharrak betetzen laguntzea.



Horregatik, kide anitzeko organoen aldizkako ebaluazio horien emaitzak eta ondorioak ikusita, administrazio publikoaren arloan eskumena duen sailak proposatuko du esleitu zitzaizkien eginkizunak betetzen ez dituzten kide anitzeko organoak azkentzea, bai eta sortu zirenean zuten helburua betetzen ez dutenak ere; halaber, azkentze hori izapidetuko du eskumena duenean, aplikatu beharreko araudiaren arabera.

Azkenik, *PEGIP 2020*ren esparruan egindako lanetik, zeinean lehenengo aldiz kide anitzeko organoen inbentario bat eta ezaugarri-multzo bat lortu baita, ondorioztatzen da ezen, etorkizuneko aldizkako ebaluazioei begira, goragokoak edo matrize diren kide anitzeko organoen menpeko batzordeen eta antzekoen inbentarioa eta ebaluazioa egitearen egokitasunari buruzko gogoeta egin beharra dagoela, ulertuta beste batzuen menpekoak diren kide anitzeko organoen jardueraren ebaluazioa askotan azken horren eginkizunen eta jardueraren gauzatze bat dela eta, zentzu horretan, baloratu beharko dela, kasua bada, organo horien ordezkari bestelako jarraipen- eta ebaluazio-moduak erabiltzea.

9.1.10. Kide anitzeko organoen balorazio-inkesta

Inkesta bat egingo zaie elkarte bidez zein banaka herritarren ordezkari gisa kide anitzeko organo aktiboetako kide titular direnei kide anitzeko organoen era askotako alderdiei buruz:

- Organoa zenbat ezagutzen duten
- Organoan duten partaidetza
- Organoaren lorpenak
- Organoaren egitura eta osaera eta hartan dagoen ordezkari-tza
- Organoaren funtzionamendua eta jarduera orokorra
- Organoaren funtzionamendua eta partaidetza-jarduera (kontsulta- eta eztabaida-prozesua eta erabakiak hartzeko prozesua)
- Organoaren eragina eta baliagarritasuna: Politika publikoan duen eragina, zerbitzu publikoetan duen eragina eta balio publiko partekatuaren sorreran duen eragina
- Emakumeen eta gizonen berdintasuna organoan
- Euskararen erabilera



Administrazio publikoaren arloko sail eskudunak baliabide propiorik ez du inkesta egiteko eta datuak analizatu eta tratatzeko; hori dela eta, aztertuko du hura kanpoan kontratatzea edo/eta hura kide anitzeko organoetako idazkaritzen bitartez egitea.

Arreta berezia eskainiko zaio honako hauen parte-hartzeari:

- Toki-erakundeak
- Herritarrak, banaka zein elkarteen bidez

Inkesta zuzenduko da honako hauek ebaluatzerat:

- **Organoaren lorpenak** (organoak noraino lortzen dituen bere helburuak; noraino bideratzen duen bere jarduketa-arloko koordinazioa eta kontrola; noraino gauzatu/betearazi diren organoaren proposamen eta aholkuak...).
- Kide anitzeko organoaren **funtzionamendua eta jarduera orokorra** (aldez aurreko zenbat denborarekin jasotzen dituen deialdiak eta aktak, bileren maiztasuna, eguneko gai-zerrenda eta bileretarako dokumentazioa, organoko kideen arteko komunikazio-fluxuak...).
- **Organoaren funtzionamendua eta partaidetza-jarduera** (kontsulta- eta eztabaida-prozesua eta erabakiak hartzeko prozesua).
- **Organoaren eragina eta baliagarritasuna** (organoa zenbateraino den eraginkorra **politika publikoa edo/eta zerbitzu publikoak** diseinatu eta haien plangintza, jarraipena eta ebaluazioa egiteko (proposamenak, helburuak, araudia, planak, proiektuak, aurrekontuak...) jarduketa-arlo horretan).
- **Organoaren eragina eta baliagarritasuna balio publiko partekatua sortzerakoan** (organoa zenbateraino den eraginkorra balio publikoaren sorreran gizarte zibilarekiko lankidetzat sustatzeko; zenbateraino ahalbidetzen duen herritarren parte-hartzea, eztabaida eta ideia-trukea; zenbateraino ahalbidetzen duen politika sektorialari buruzko (planak, programak, proiektuak, legeak eta bestelako arauak eta abar) ekimen eta esku-hartze publikoen gaineko kontsulta).

Inkestan ebaluazio- eta diagnostiko-fasera pasatu diren kide anitzeko organo guztiak sartuko dira, salbu sailarteko kide anitzeko organoak eta gehien bat eginkizun exekutiboak dituztenak, hirugarrenen parte-hartzerik gabe, pertsona fisiko nahiz juridikoak izan, guztiak ere herritarren ordezkariak dela elkarteen bidez (enpresak,



sindikatuak eta bestelako erakunde sozialak...) dela banakakoen bidez (adituak eta nabarmendu diren pertsonak).

Bai Administrazioak, bai, kasua bada, aurreikusitako inkestaren alde adjudikazio-hartzaileak datuen babesaren arloko legeria indardunean xedatutakoari erreparatu beharko diote, eta xehetasun horiek oinarri teknikoen pleguan bertan zehaztuko dira.

Gainera, Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzak [segurtasunari buruzko dokumentu](#) bat badauka, bai eta [konfidentzialtasun-konpromisorako eta datu-lagapenerako eredu](#) bat ere, kanpoan kontratatutako esleipen-hartzaile guztiek sinatuko dituztenak.

Aipatutako egintza juridikoa ez dagoen bitartean, berariazko adostasunaren eskaera formala egingo zaie kide anitzeko organoetako kideei, zeinak kide anitzeko organoetako idazkaritzen inkesta-fasera pasatuko baitira; betiere, datu pertsonalak babesteari buruzko araudiarekin bat etorriz.

Era berean, indarrean dagoen araudiaren arabera, segur aski, ondorioztatzen den datu-tratamendua Tratamendu Jardueren Erregistroan jaso beharko da.

Inkestak egin behar dituzten organoak³² 135 dira, gaur egungo kide anitzeko organo aktiboen % 54. Nolanahi ere, inkestan inplikaturako kide anitzeko organoen zerrenda betearazteko unean gaurkotuko da.

³² Ez dakigu zein inplikazio duen Hezkuntza Departamentuko Lanbide Heziketaren Koordinaziorako Organo Gorenak, 2018an sortutakoak, zeren eta haren informazioa ez baitago eskuragarri sisteman.



Herritarren balorazioari begira, parte-hartzerako osagai bat duten kide anitzeko organoen zerrena³³

Kide anitzeko organoa	Saila/erakundea/entea	Organoaren izaera
Terminologiako Batzorde-atal Berezia	Kultura eta Hizkuntza Politika	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Toponimiako Batzorde-atal Berezia	Kultura eta Hizkuntza Politika	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Euskara Ingurune Digitalean sustatzeko batzorde-atal berezia	Kultura eta Hizkuntza Politika	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Euskararen Erabilera eta Gizarte Aktibazioa sustatzeko batzorde-atal berezia	Kultura eta Hizkuntza Politika	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Gazteen Unibertsoa eta Euskara Batzorde-atal Berezia	Kultura eta Hizkuntza Politika	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Kiroleko Indarkeriaren Aurkako Batzordea	Kultura eta Hizkuntza Politika	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Euskadiko Museoen Aholku Batzordea	Kultura eta Hizkuntza Politika	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Euskadiko Ondare Arkitektoniko Monumentalaren Aholku Batzordea	Kultura eta Hizkuntza Politika	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Euskararen Aholku Batzordea	Kultura eta Hizkuntza Politika	Gainerakoak baino parte-hartzaileagoa
Bikain Euskararen Kalitate Ziurtagiriaren Artezkaritza Kontseilua	Kultura eta Hizkuntza Politika	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Kulturaren Euskal Kontseilua	Kultura eta Hizkuntza Politika	Gainerakoak baino parte-hartzaileagoa
Kirolaren Euskal Kontseilua	Kultura eta Hizkuntza Politika	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
2014-2020 aldirako Euskadiko Landa Garapenerako Programaren Jarraipen Batzordea	Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak	Aukera guztiek garrantzi bera dute
Euskadiko Nekazaritza eta Elikagaigintzako Kontseilua	Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Industria Segurtasunerako Euskal Kontseilua	Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Euskadiko Agregakinen Mahaia	Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak	Aukera guztiek garrantzi bera dute
Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Sasoikako Lanari buruzko Erakundearteko Mahaia	Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak	Gainerakoak baino parte-hartzaileagoa
Musika Irakaskuntzen Aholku Batzordea	Hezkuntza	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Euskadiko Unibertsitateko Ikasleen Aholku Batzordea	Hezkuntza	Berdin aholku-emailea eta parte-hartzailea
Euskadiko Eskola Kontseilua	Hezkuntza	Berdin aholku-emailea eta parte-hartzailea
Lanbide Heziketako Euskal Kontseilua	Hezkuntza	Gainerakoak baino parte-hartzaileagoa
Euskadiko Unibertsitate Kontseilua	Hezkuntza	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Begira-Publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko aholku batzordea	Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen Aholku Batzordea	Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea	Gainerakoak baino parte-hartzaileagoa
Ettxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko erakunde arteko II. Hitzarmenaren Jarraipen Batzordea	Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea	Gainerakoak baino parte-hartzaileagoa
Arabako Aholku Azpibatzaile Batzordea	Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea	Gainerakoak baino parte-hartzaileagoa

³³ Plana onetsi ondoren, zerrenda hori berrikusi eta kontrastatuko da sistemako informazio gaurkotuagoarekin; hain zuzen, sailek, erakunde autonomoek eta zuzenbide pribatuko ente publikoek berrikusitakoarekin.



Bizkaiko Aholku Azpibatzordea	Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea	Gainerakoak baino parte-hartzaileagoa
Gipuzkoako Aholku Azpibatzordea	Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea	Gainerakoak baino parte-hartzaileagoa
“Arreta Juridikoa eta Giza Eskubideak” lan batzordea	Enplegua eta Gizarte Politikak	Gainerakoak baino parte-hartzaileagoa
“Hezkuntza” lan batzordea	Enplegua eta Gizarte Politikak	Gainerakoak baino parte-hartzaileagoa
“Gizarte- eta lan-mailako txertatzea” lan batzordea	Enplegua eta Gizarte Politikak	Gainerakoak baino parte-hartzaileagoa
“Herriarren Partaidetza, Kultura eta Sentsibilizazioa” lan batzordea	Enplegua eta Gizarte Politikak	Gainerakoak baino parte-hartzaileagoa
“Gizarte Baliabideak eta Etxebizitza” lan batzordea	Enplegua eta Gizarte Politikak	Gainerakoak baino parte-hartzaileagoa
“Osasuna” lan batzordea	Enplegua eta Gizarte Politikak	Gainerakoak baino parte-hartzaileagoa
Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko Batzorde Iraunkor Sektoriala	Enplegua eta Gizarte Politikak	Gainerakoak baino parte-hartzaileagoa
Familia Bitartekaritzako Aholku Batzordea	Enplegua eta Gizarte Politikak	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren Erabateko Sustapenerako eta Partaidetza Sozialerako Kontseilua	Enplegua eta Gizarte Politikak	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Adinekoen Kontseilu Sektoriala	Enplegua eta Gizarte Politikak	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Familiaren Euskal Kontseilua	Enplegua eta Gizarte Politikak	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua	Enplegua eta Gizarte Politikak	Aukera guztiek garrantzi bera dute
Boluntariotzaren Euskal Kontseilua	Enplegua eta Gizarte Politikak	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Gizarteratzeko Euskal Kontseilua	Enplegua eta Gizarte Politikak	Aukera guztiek garrantzi bera dute
Euskal Autonomia Erkidegoko herritar etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroa	Enplegua eta Gizarte Politikak	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Euskadiko Elkarriketa Zibilerako Mahaia	Enplegua eta Gizarte Politikak	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Administrazio Orokorreko eta Erakunde Autonomoetako Berdintasuneko Batzorde Iraunkorra	Gobernantza Publikoa eta Autogobernua	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen Segurtasun eta Osasunerako Zentro arteko Lantaldea.	Gobernantza Publikoa eta Autogobernua	Gainerakoak baino parte-hartzaileagoa
Fundazioen Euskal Kontseilua	Gobernantza Publikoa eta Autogobernua	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Funtzio Publikoaren Euskal Kontseilua	Gobernantza Publikoa eta Autogobernua	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Euskadiko Enplegu eta Gizarte Aurreikuspenaren Sektoreko Batzordea	Ekonomia eta Ogasuna	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Euskal Estatistika Kontseilua	Ekonomia eta Ogasuna	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Gizarte Aurreikuspenaren Euskal Kontseilua	Ekonomia eta Ogasuna	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Kontsumoko Kontsulta Batzordea	Kontsumobide - Kontsumoko Euskal Institutua	Aukera guztiek garrantzi bera dute
Ados Aholku Batzordea	Lehendakaritza	Aukera guztiek garrantzi bera dute
Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateko uztailaren 28ko 12/2016 Legearen Balorazio Batzordea	Lehendakaritza	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Gaierako Aholku Batzordea	Lehendakaritza	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Kanpo Ekintzako Aholku Kontseilua	Lehendakaritza	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Euskal Gizataldeekiko Harremanetarako Aholku Batzordea	Lehendakaritza	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa




2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren Aholku Batzordea	Lehendakaritza	Gainerakoak baino parte-hartzaileagoa
Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseilua	Lehendakaritza	Aukera guztiek garrantzi bera dute
Garapenerako Lankidetzarako Euskal Kontseilua	Lehendakaritza	Berdin aholku-emailea eta parte-hartzailea
Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseilua	Lehendakaritza	Gainerakoak baino parte-hartzaileagoa
Naturzaintza-Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Aholku Kontseilua	Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumenerako Aholku Kontseilua	Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Lurralde Politikako Aholku Batzordea	Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza	Gainerakoak baino parte-hartzaileagoa
Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Lankidetzak Kontseilua	Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza	Gainerakoak baino parte-hartzaileagoa
Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseilua	Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Patronatua	Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Bilbo-Basurtu Erakunde Sanitario Integratuko (ESI) Laguntza Etikoko Batzordea	Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Arabako Osasun Mentalaren Sareko Laguntza Etikoko Batzordea	Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Donostiako Unibertsitate Ospitaleko Laguntza Etikoko Batzordea	Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Gurutzetako Zerbitzu Antolaketaren Laguntza Etikoko Batzordea	Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Debagoiena Erakunde Integratuko (ESI) Laguntza Etikoko Batzordea	Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Araba Erakunde Integratuko (ESI) Laguntza Etikoko Batzordea	Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Barrualde-Galdakaoko Erakunde Integratuko (ESI) Laguntza Etikoko Batzordea	Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Gipuzkoako Osasun Barrutiko Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoa	Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Basurtuko Ospitaleko Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoa	Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Gurutzetako Ospitaleko Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoa	Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Galdakaoko Ospitaleko Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoa.	Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Arabako Unibertsitate Ospitaleko Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoa	Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Osalanen Kontseilu Nagusiko Prestakuntza Batzordea	Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea	Gainerakoak baino parte-hartzaileagoa
Osalanen Kontseilu Nagusiaren Kudeaketa Planaren Jarraipen Batzordea	Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea	Gainerakoak baino parte-hartzaileagoa
Osalanen Kontseilu Nagusia	Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea	Gainerakoak baino parte-hartzaileagoa
Publizitate Sanitarioaren Kontrolako Batzordea	Osasuna	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Euskadiko Zainketa Aringarrien Planaren Jarraipen Batzordea	Osasuna	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Agiri Klinikoak Baloratzeko, Aukeratzeko eta Garbitzeko Batzordea	Osasuna	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Sorospenerako Etika Batzordeak Akreditatzeko Batzordea	Osasuna	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Euskadiko Medikamentuen Gaineko Ikerkuntza Batzorde Etikoa	Osasuna	Aukera guztiek garrantzi bera dute
Euskadin, emandako giza esnearen bankua ezartzeko eta edoskitze naturala sustatzeko Batzordea	Osasuna	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Euskadin C Hepatitisaren Artatzeko Estrategiaren Gizarte eta Herritarren Partaidetzarako Batzordea	Osasuna	Gainerakoak baino parte-hartzaileagoa



Euskadiko Lehen Mailako Arretaren Aholku Batzordea	Osasuna	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Sortzetiko Gaixotasunak Jaioberriengan Bahetzeko Aholku Batzordea	Osasuna	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Gaixotasun Infekziosoen Agerraldietarako Aholku Batzordea	Osasuna	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Gaixotasun Arraroei buruzko Aholku Batzordea	Osasuna	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Txertaketen Euskadiko Aholku Batzordea	Osasuna	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Mellitus Diabetesari buruzko Euskadiko Aholku Kontseilua	Osasuna	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Minbiziari buruzko Euskadiko Aholku Kontseilua	Osasuna	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Zirkulazio Aparatuko Gaixotasunei buruzko Euskadiko Aholku Kontseilua	Osasuna	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Osasun Mentalari buruzko Euskadiko Aholku Batzordea	Osasuna	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Euskadiko Sanitate Kontseilua	Osasuna	Gainerakoak baino parte-hartzaileagoa
Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Euskal Kontseilua	Osasuna	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Adikzioen Euskal Batzordea	Osasuna	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Euskal Autonomia Erkidegoko Udaltzaingoa Koordinatzeko Batzordea	Segurtasuna	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Euskadiko Bide Segurtasuneko Batzordea	Segurtasuna	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Zezenketa-gaien Euskal Batzorde Aholku-emailea.	Segurtasuna	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Ertzaintzaren Kontseilua	Segurtasuna	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Euskal Kontseilua	Segurtasuna	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Merkataritzako Aholku Batzordea	Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Euskadiko Turismo Mahaia	Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Merkataritza Banaketaren Behatokia	Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Unibasqen Aholku Batzordea	Unibasq - Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentzia	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Unibasqen Ikasleen Aholku Batzordea	Unibasq - Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentzia	Gainerakoak baino parte-hartzaileagoa
Unibasqen Titulazioen Programako Arteen eta Giza Zientzien Ebaluazio Batzordea	Unibasq - Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentzia	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Unibasqen Titulazioen Programako Osasun Zientzien Ebaluazio Batzordea	Unibasq - Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentzia	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Unibasqen Titulazioen Programako Zientzien Ebaluazio Batzordea	Unibasq - Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentzia	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Unibasqen Zientzia Esperimentalen Ebaluazio Batzordea (lansari osagarriak)	Unibasq - Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentzia	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
Unibasqen Zientzia Esperimentaletako Ebaluazio Batzordea (II Laren Akreditazio Programa)	Unibasq - Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentzia	Gainerakoak baino aholku-emaileagoa
